


hh
hik hasi

Esther Uriari elkarrizketa
Solasaldi literarioak Haur Hezkuntzan
Lur eta Amets pantaila handian
Motxila bete ilusio
1-2 urteko umeen espazioak
Wikimediaren ekarpena hezkuntzan
Biodantza eskolan
Alaine Agirre


242



KULTUR TRANSMISIOA



EGUN ON ESAN BEHAR DA!



ONDOKOA IKUSTEA ETA AINTZAT
HARTZEA BEGIRUNE KEINU BAT DA...



AURKIBIDEA

GAIA / 10

KULTUR TRANSMISIOA

Euskal kultur sorkuntzaren transmisioak hezkuntza arautuan zernolako egoera bizi duen aztertzeko eta irtenbideak bilatzen hasteko jardunaldia egin zuten ehundik gora irakasle, sortzaile eta eragilek Azpeitian, urriaren 19an, Jalgi, Elkar Fundazioak eta UEUK antolaturiko lan-saioan. Egoera kritikoa dela adierazi zuten adituek, baina lekuan lekuko argi-printzak erakutsi zituzten lurralde eta adierazpide ugaritako arituek.

ELKARRIZKETA / 16

ESTHER URIA

Antzerki arloa eta hezkuntza mundua gurutzatu zaizkio Esther Uriari bere bizitzan eta biak bateratzeko modua aurkitu du. Ibilbide biak integratu ditu, antzerkiko hainbat teknika hezkuntzako egunerokoan erabiliz. Eta horrek bizikidetzat hobetzeko balio duela frogatu zuen DBHko gazteekin egindako tesian. Antzerkia tresna pedagogiko gisa baliagarria dela dio bizikidetzat eta elkarbizitza sustatzeko.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostizu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fer-

nandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Azaleko argazkia: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-10-18).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Bidezidorretatik erdigunera

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Kultur transmisioa

18 ELKARRIZKETA

ESTHER URIA

“Gutxieneko formazioa beharrezkoa da, baina baita ausardia edukitzea ere; ausartu egin behar dugu gauza txikiak egitera”

24 ESPERIENTZIAK

Solasaldi literarioak HHn

28 EKARPENAK 1

Pantaila handirako jautzia prestatzen

30 EKARPENAK 2

Motxila bete ilusio

32 EKARPENAK 3

1-2 urteko umeentzako jolas espazioaren gaineko hausnarketa, Pikler pedagogiaren orbitan

36 GALDEIDAZU

GALDER GONZALEZ

Zer da Wikimediatik hezkuntza esparruan egiten ari zaretena?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA


Biodantza eskolan

42 ATZEKO ATETIK

Alaine Agirre



Eskola bideak



Bidezidorretatik erdigunera

editoriala

UEUk, Jalgik, Elkarrek eta Hik Hasi antolaturiko ‘Sormenean hezi, kulturari bizi’ jardunaldietan euskal kultur sorkuntzaren transmisioaren diagnosi larria egin zuten adituek, baina argi asko erakutsi zituzten irakasle eta sortzaileek.

nes Osinagak aurreko hik hasi aldizkarian zioen bezala, euskal kultur sorkuntzaren transmisioan, gaur egun, ez da naturala. “Ezin dugu espero sukaldean gerta dadin, kultur sorkuntzaren transmisioa politikoa da edo ez da”. Politikoa, erabaki politikoa izan baitzen euskal kultur transmisioa etetea. Ximun Fusch aktoreak ezin argiago esan zuen hori Azpeitian: “Zuek hemen, Hegoaldean 50 urteko sarraski kulturala, ekonomikoa eta, oro har, gizarte sarraskia bizi izan duzue”. Horra bada, sarraski kulturalaren ondorio, gaur bizi dugun egoera kultur transmisioari dagokionez.

Baina faktoreak ugari dira. Euskal kulturaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ez eze, kultur sorkuntzaren sozializazioa, ikusgarritasuna, zabalpena, guztia baitago egon krisian, alarma gorriak pizteko egoeran. Hezkuntzako egoera kritikoa aurkeztu zuen Azpeitian Iratxe Retolazak, —argi esan zuen, gazteek ez dute ezagutzen euskal kultura— baina argi izpi asko agertu zituzten han-hemenka, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian proiektu ausart eta interesgarriak ari dira egiten, nondik eta bidezidorretatik, euskal kulturak curriculumean berriazko lekua ez duen ikastetxeetan. Eta aldiz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako curriculumetan bai, euskal kultura zehar-lerro izan behar dela esaten denean, hortxe gertatu da atzerakada handiena. Curriculuma edertzen duen “hitz politen pilaketa” besterik ez da euskal kulturak zehar-lerro izan behar duela esatea, ez



bada jartzen baliabiderik, ez badira irakasleak formatzen —ezta Euskara eta Euskal literatura eman behar duten espezialistak ere—.

Formazioa, baliabide eskasia, eta laguntzen ez duen ingurune oso bat: euskal kultura eskolan ez eze, ez baitago presente ez etxean, ez kalean, ez komunikabideetan... Alor guztietan ari da gertatzen atzerakada. Faktore ugari eraginez, 50 urteko sarraski politikoagatik, eta ondotik etorri diren erabaki politikoengatik (edo etorri ez direnengatik).

Formazioa eta baliabideak behar-beharrezko direla ikusi zen Azpeitian, baina baita kontzientzia eta ardurak hartzea ere. Irakasle oro da kultur erreferente. Buruketa matematikoe-tan islatzen dugunetik hasi eta azaroaren 1aren bezperan Halloween ospatzen dugun ala Gau beltza ospatzea erabakitzen dugun... Kontzientziak ere lur asko astintzen ditu.

Kezkak batu zituen ehundik gora irakasle, kultur eragile eta sortzaile Azpeitiko jardunaldietan, baina argi eta bide asko ikusarazi ziren, han-hemenka esperientzia bikain eta ausartak ari dira egiten sortzaile, irakasle eta eragileak. Orain, bidezidorrak zabaltzea eta elkarrekin zeharkatzea dagokigu euskal kultura erdigunera ekartzeko; artikulatzea, baliabideak eta materialak bildu, ezagutarazi eta denon eskura jartzea, eta administrazioei euren egitekoak betearaztea.

“Ebaluazio zigortzaile batek ez du zentzurik. Ebaluazioa soilik era formatzailean ulertzen dut nik, zerbait ikasteko aukera emango ligukeen balorazio gisa”

Federico Malpica



400 LAGUNETIK GORA BILDU DIRA AURTENGO 'ESKOLA HIZTUN BILA' JARDUNALDIETAN

Eskola hiztun bila jardunaldiaren XXIII. edizioak 400 profesioaletik gora bildu ditu Bilbon bi egunetan zehar, Hizkuntza Normalizaziorako aholkulari teknikoak gehienak. Aurtengo lelo nagusia *Euskaraz ahal eta nahi* izan da eta alderdi teorikoak ez ezik, ikastetxeetan abian diren hainbat esperientzia praktikoko ezagutzeko eta partekatzeak aukera izan da bi egunotan. Euskararen jabekuntzari loturiko estrategia didaktikoez aritu dira, eta ikasleekin landu beharreko jarrera edo motibazioak ere aztertu dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Normalkuntzarako Ulibarri programan parte hartzen duten ikastetxeei eta hango arduradunei zuzendutako jardunaldia izaten da *Eskola hiztun bila* deituriko hau. Ulibarri programa 1996-97 ikasturtean jarri zen martxan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan euskararen normalizazioan laguntzeko. Gaur egun 410 ikastetxek hartzen dute parte, euren eguneroan euskararen erabilera eta kalitatea indartzeko xedez.

ESKOLA JANTOKIEI BURUZKO ARAU BERRI BAT EGITEKO ESKATU DIO LEGEBILTZARRAK EUSKO JAURLARITZARI

2020-2021 ikasturterako eskola-jangelei buruzko araudi berri bat egiteko eskatu dio Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Lau hilabeteko epean eredu berri bat diseinatzeko eskatu diote: kudeaketa eredu desberdinak aztertu, kudeaketa berritzaile eta dezentralizatua hautatzen duten zentzorei aukera bideragarriak eskaini, kontratazio baldintzen oinarriak berritzeko prozesu bat martxan jarri hezkuntza komunitatearekin eta, horren guztiaren ondoren, arau berri bat proposatu. Ikastetxean sukaldeak egin nahi dituzten ikastetxeei hori egitea bermatzeko ere eskatu diote Jaurlaritzari.

EUSKAL IKASLEEN TALDE BERRI BAT SORTU DA

Hainbat euskal ikaslek talde berri bat sortu dute euskal hezkuntza sistema propio baten alde aritzeko. Gasteizen aurkeztu zuten mugimendu berria, "egungo hezkuntza sisteman bizi dituzten injustizia, zapalkuntza eta problematikei" aurre egiteko beharra sentitu dutelako. Orain arteko ikasle mugimenduek egindako lana goretsi dute, eta aitortu dute azkenaldian mugimendua apalduta dagoela euren ustez. "Horregatik, antolatzeari ekin diogu, ikasleak izateaz gain, hezkuntza mugimenduan bizi dugun hutsune bat betetzeko jaio gara. Indarra daukagu, eta indarra emango diogu gure hezkuntzari", adierazi dute.

Talde berriaren dinamika Euskal Herrikoa izango dela iragarri dute. Ildo horretan, "gure artean saretu, eta Paristik eta Madrildik inposatutako ereduak erantzun bateratu bat emateko hautua egin dugu".

Hasitako ibilbidearen lehen ekintza azaroaren 28an izango da. Ikasle greba egiteko deialdia egin dute, "guztionez mesedetan egongo den hezkuntza burujabe bat" eraikitzen joateko.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

KRISTAU ESKOLAKO AFERA KONPONTZEKO ELKARTUKO DIRA SINDIKATUAK, PATRONALA ETA EUSKO JAURLARITZA



Lan Harremanetarako Kontseilua bitartekari lanak egiten hasi da kristau eskolako ikastetxeen gatazka bideratzeko asmoz. Sindikatuek hilabeteko greba deialdia egin dute azaroaren 7tik abenduaren 5era, eta hori saihestea da aipatu kontseiluaren helburua. Hala, kontziliazio bilera batera deitu ditu patronala, sindikatuak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. LAB, Steilas, CCOO eta ELA sindikatuek aurretik ere egin zuten bilera proposamena eta akordioa lortzeko aukera ikusten dute. Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua bilerara joateko prest agertu da. Aurretik adierazia du “Lan Hitzarmenetarako Kontseiluak deitzen bagaitu, bilerara joango gara. Akordioa interesatzen zaigu”.

Asko luzatzen ari den afera da. Iazko ikasturtean 24 egunetan egin zuten greba Kristau Eskola sareko ikastetxeetan. Sindikatuek lan hitzarmen berria eskatzen dute, hamar urte baitira azken ituna sinatu zutela. Kristau Eskolak, aldiz, sindikatuen eskaerei erantzuteko baliabiderik ez daukala dio. Eskaera nagusiak eta desadostasuna sortzen duten puntuak enpleguari, soldadari eta irakasleen lan kargari dagozkienak dira.

Bitartean, gurasoak oso kezkatu eta irtenbide eske daude. Sindikatuek iragarritako greba deialdiak aurrera egiten badu, 100.000 ikasleri eragingo die.

NAVARRA SUMA-K D EREDUKO LIBURUAK AZTERTZEKO ESKATU DU

Navarra Sumak D ereduko testuliburuaren azterketa “oso” egiteko eskatu dio Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuari. Ziurtatu nahi du testuliburuak Nafarroako “errealitate instituzionalarekin bat” datozela. Izan ere, Pedro Gonzalez Navarra Sumako parlamentariak berriki salatu du “liburu batzuek ez dutela “legedia betetzen”.

ERRETIRATUTAKO IRAKASLEAK DAGOKIEN ORDAINA JASO EZINIK DABILTZA

Adostuz plataforman bildutako irakasle erretiratuek salatu dute EAJk eta PSE-EEk blokeatuta daukatela euren erretiro aurreratua kobratzeko prozedura. Krisi ekonomikoa zela-eta, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi zituen erretiro aurreratugatik irakasle horiei 2012an ordaindu beharreko kalte-ordainak. Maiatzean, Eusko Legebiltzarrak —EH Bilduren, Elkarrekin Podemosen eta PPren babesarekin— tramiterako onartu zuen ordainketa horiek egiteko lege proposamen bat, baina, ordutik, ez da mugimendurik izan. “Ezin dugu demostratu, baina uste dugu EAJ eta PSE-EE propio ari direla luzatzen tramitazioa, lege-gintzaldia agortzeko”, adierazi dute Adostuz plataformako kideek.

TUTERAKO ARGIA IKASTOLA LAGUNTZA ESKE

Tuterako Argia ikastolak laguntza eskatu du diru zorrak ez pilatzeko, Nafarroa Oinez jaialdian aurreikuspen ekonomikoak ez zituztelako bete. Horretarako, kontu korronte hauek ireki dituzte:

- Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552

- Nafarroako Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324

- Caixabank ES52 2100 3695 1322 1015 8880



HEZKUNTZA GAIAK HIZPIDE, PSIKOLOGO EUSKALDUNEN III. TOPAKETAN

Azaroaren 16an egingo dute Eibarko Markeskoa Jauregian Psikologo Euskaldunen III. Topaketa. Egun guztiko egitaraua prestatu dute antolatzaileek eta tartean hezkuntza arloko gaiak ere jorratuko dituzte, psikologiaren esparrutik eta euskaraz.

Jardunaldiaren antolatzaileen arabera, hiru izango lirateke topaketaren helburu nagusiak: batetik, psikologian lanean ari diren profesional euskaldunak elkartzea; bestetik, egun gure jendartean interes handia duten zenbait gai euskaraz jorratzea; eta hirugarrenik, psikologo euskaldunen sarea antolatzea.


Besteak beste, goizean hezkidetzaren inguruko hitzaldia eskainiko du Alaitz Etzaniz psikologo eta ikertzaileak, *Familia, eskola eta komunitatearen arteko baterako hezkuntza* izenburupean. Atsedeneren ondoren, berriz, ebaluazio tresnak euskarara egokitzearen inguruan hitz egingo dute eta familia terapiak ere hizpide izango dituzte. Arratsalde partean, beste gaien artean, *Psikologo euskaldunak hezkuntza munduan* hitzaldia eskainiko du Jon Agirre Lauaxeta Ikastolako ordezkariak.

Goizeko 9etan abiatuko da jardunaldia eta 17:30ean amaitu. Topaketan parte hartu nahi dutenek www.ueu.eus webgunearen bidez eman beharko dute izena.

BIZIPOZA ELKARTEAK DOKUMENTALA ETA DOKUWEB-A SORTU DITU

Bizipoza elkarteak proiektua ezagutarazteko bi produktu berri sortu ditu. Azken bi urteotan buru-belarri aritu dira Dokuweb aplikazioa eta dokumentala sortzeko lanetan eta egindako lanak bere fruituak eman ditu. Dagoeneko ikusgai daude bi produktuak www.bizipoza.eus webgunean.


Horrez gain, elkarteak aurrez aurreko aurkezpenak egingo ditu datozen hilabeteetan hainbat herritan. Azaroaren 12an, esaterako, Donostian izango dira, hil bereko 14an Gasteizen, 20an Bilbon, eta 30ean Hazparnen egingo dute aurkezpena. Ekitaldi guztiak elkartearen webguneako agenda atalean ikus daitezke.



'LOTURAREN BALIOA' JORRATUKO DUTE LUZARO PSIKOMOTRIZITATE-ESKOLAREN JARDUNALDIETAN

Azaroaren 29an, 30ean eta abenduaren 1ean egingo dira Luzaro Psikomotrizitate-Eskolaren XIV. Jardunaldiak Gasteizko Europa Jauregian. Aurten jorratuko duten gaia *Loturaren balioa* izango da, gaur egungo hezkuntza-testuinguruan oinarri-oinarrizkoa den gaia, antolatzaileen arabera. Izan ere, haurra osasuntsu garatuko bada, ezinbestekoa zaio atxikimendu segurua eraikitzea, eta, halaber, atxikimendu segurua eraikitzeko, funtsezkoa da helduaren eta haurren artean ezartzen den lotura. Hori horrela izanik, jardunaldi hauen xedea da atximendu seguru hori eraikitzen lagungarri izatea.

Dagoeneko irekita dago jardunaldietan izena emateko epea, eta Luzaro Psikomotrizitate-Eskolaren webgunearen bidez egin daiteke. Informazio gehiago eskura daiteke www.luzaro.net webgunean.



HIZPIDE IZANGO DA

'ZALDI URDINA' ANTZEZLANA IKUSGAI DAGO EUSKAL HERRIKO HAINBAT ANTZOKITAN

Berriki estreinatu da Euskal Herrian *Zaldi urdina* antzezlan. *Artedrama*, *Axuti!* eta *Dejabu* Panpin Laborategiak elkarrekin sortu duten laugarren ikuskizuna da. Izenburuarekin erreferentzia egiten zaio zaldi zuria izenez Euskal Herrian hain ezaguna izan den heroinari. Egitate horretatik abiatzen da ikuskizunaren planteamendua: oso erraz aurkitzen da heroina (eta edozein droga) Euskal Herrian. Trantsizio garaitik hasi zen heroina Euskal Herriko zazpi kantoietan gazteria inbaditzen. Durangon, esate baterako, heroinak, gerlako bonbardaketak baino hildako gehiago eragin ditu. Eta horrek zer eragin izan du familietan, lagunartean edo bikote harremanetan? Zer eragin du gazteriarren ametsetan? Zertarako isildu da gertakaria? Zertarako sentitu da betidanik drogaren behar ezinbesteko hau? Miseriatik ihes egiteko? Patua bestelakotzeko? Izarrekin bersarkatzeko? Horiek dira ikuskizun honek jorratuko dituen galdera eta istorioak.


Igor Elortza eta Unai Iturriagak idatzitako testua Ximun Fuchs eta Ainara Gurrutxagak zuzendu dute eta aktoreak honako hauek dira: Ander Lipus, Olatz Beobide, Urko R. Pescador, Miren Alcalá, Manex Fuchs, Edurne Azkarate eta Oier Zuñiga.

Antzezlanarekin batera, irakasleek ikasleekin lantzeko txosten pedagogiko bat ere prestatu dute, hainbat tresna proposatzen direlarik.

Honako hauek dira abendura bitartean zehaztuta dauden emanaldiak (2020an gehiago izango dira):

Azaroak 7 Bilbon
Azaroak 9 Barakaldon
Azaroak 12 Hernanin
Azaroak 13-14 Iruñean
Azaroak 15 Oñatin
Azaroak 17 Oretetan
Azaroak 19 Gasteizen
Azaroak 22 Gernikan
Azaroak 23 Larresoron
Azaroak 30 Markiña-Xemeinen
Abenduak 1 Sopelan
Abenduak 13 Hendaian
Abenduak 20 Lasarte-Orian

Jarraipena egiteko eta informazio gehiagorako: www.zaldiurdina.eus



'TXIKITAKO BELDURRAK' HIZPIDE HIK HASI-REN UDAZKENEKO JARDUNALDIETAN



Hik Hasik antolatzen dituen Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako Udazkeneko jardunaldiak azaroaren 15ean Bilbon eta 16an Donostian izango dira. Aurten landuko den gaia *Txikitako beldurrak* izango da eta hizlarien artean izango dira Myrtha Chokler, Jon Arana eta Katty Homar psikomotrizistak eta Alexander Barandiaran MUko irakaslea. Jon Aranak landuko duen gaia *Beldur arkaikoak* izango da. Myrtha Chokler 0-6 urteko haurren beldurretan zentratutako da. Alexander Barandiaran galdera batetik abiatuko da: *Posible al da eskolan beldur barik bizitzea?* Eta Katty Homarrek beldurrak eta ipuinak izango ditu hizpide. Denen arteko mahai-inguruek borobilduko dute jardunaldia.

Ostiralean Bilbon egingo den saioa goizez izango da, eta larunbatean Donostian egingo dena egun osoz luzatuko da.

Oraindik plaza batzuk gelditzen dira eta informazio gehiagorako eta izena emateko www.hikhasi.eus webgunera jo daiteke.



Argazkia: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Euskal kultur sorkuntzaren transmisioak, oro har, eta, bereziki, hezkuntza arautuan bizi duen egoerak, Elkar Fundazioa, UEU, Jalgi eta Hik Hasi batu ditu eta 'Sormenean Hezi, Kulturari bizi' jardunaldia antolatu dute egoeraren erradiografia egiteko eta urratsak egiten hasteko. Gaur-gaurkoz, kultur transmisioaren egoera alarma gorriak piztekoa dela diote adituek, baina lekuan leku eta arte adierazpide anitzetan ari dira bidezidorrak irekitzen, irakasleen, eragileen eta sortzaileen arteko elkarlanetik. Horietako lekukotasun batzuen berri eman dute Azpeitiko lan-saioan.

GAIA: KULTUR TRANSMISIOA

Eskolan ere kultura erdigunean izan dadin

Gazteek, unibertsitatera iristen direnean, ez dute euskal kultura ezagutzen. Literatura, musika... zer esanik ez arteak, dantza... ez daukate erreferentziarik. Iratxe Retolaza EHUko irakasle eta UEUko ikerlariak urterik urte egiaztatu du gazteek euskal kulturaren inguruan duten ezagutzaren atzerakada: “Nire esperientziak dio alarma gorriak pizteko egoeran gaudela: 14 urteotan atzerapausoa ikaragarria izan da. D ereduan ikasiak etortzen zirenean duela 14 urte, gaur egun etortzen direnek baino gehiago ezagutzen zuten euskal kultura. Aurrerapausoak egiteko egiturak sortu dira, baina nire esperientziak dio oso nabarmena dela ezjakintasuna”.

Alarma gorriak aipatzen ditu unibertsitateko irakasleak. Euskal kulturaren transmisioa larri dago, bada. Gotzon Barandiaran idazleak Zainketa Intentsiboko Unitatean irudikatzen du euskal kulturaren transmisioa: “Gaur egun, euskal herritar batek, kultura ingeles, frantses eta espainoleko edukiak jasotzen ditu etengabe eta inolako ahaleginik egin gabe. Euskal kulturagintzari buruzko erreferentziak, ostera, ez. Euskal sortzaileok eta geure lanak ezezagunak dira euskal herritarren gehiengoarentzat, 2018ko ikerketek frogatu dutenez. Hezkuntza arautu, ez arautu eta etxe edo familia bidezko transmisioa ezinbestekoa da gure kulturagintzaren ekosistema Zaintza

Intentsiboen Unitatetik atera eta osasuntsu biziarazteko”.

UEUko, Elkar Fundazioko, Jalgiko eta Hik Hasiko kideek Retolazak eta Barandiaranek narbarmentzen duten kezka partekatzen dute eta mahai baten bueltan eseri ziren urte honen hasieran, batetik euskal kultur sorkuntzaren transmisioaren egoera benetan zein den aztertzeke eta bestetik, “Zainketa Intentsiboko Unitatetik atera eta osasuntsu biziarazteko neurriak hartzeko”. Lehen abiapuntu gisa, *Sormenean hezi, kulturaren bizi* izeneko jardunaldiak egin zituzten Azpeitian, iragan urriaren 19an, hango udalaren laguntzarekin, euskal kultur transmisioaren egoera hezkuntza aratutuan zertan den ezagutzeko, eta indarguneak eta ahulguneak detektatzeko, euskal herrietan egiten ari diren lanketa interesgarrien berri izateko, hainbat adierazpidetako esperientziak ezagutarazteko eta aurrera begirako urrats bateratuak pentsatzen hasteko. Irakasleak elkartu ziren, kulturagileak eta bitartekariak, 110 lagun orotara.

Alarma gorriak

Unibertsitateko kasua dakar Iratxe Retolazak, baina euskal kulturaren transmisioa hezkuntza aratutuan ez eze, ez dago bermatua hezkuntza ez aratutuan, ez familian, ez gizarte-

GAIA: KULTUR TRANSMISIOA

Eskolan ere kultura erdigunean izan dadin

ko beste eremuetan ere. Olatz Osa Elkar argitaletxeetako zuzendariak azaldu zuen eran, hezkuntza arautuarena ertz bat da, baina “gure kulturaren unibertso honetan badira beste ertz batzuk ere, komunikabideak, kultur eragileak... sormenarekin, ekoizpenarekin, komunikazioarekin, ikusgarritasunarekin zerikusia dutenak, eta eremu horien guztien arteko artikulazioa behar dugu, estrategia komun bat behar dugu, transmisioa bermatuko bada”. Gai ardatzen arteko estrategia artikulatu bat aldarrikatu zuen, proiektu bateratu bat epe ertain eta luzerako. “Subjektuen arteko saretzea” lehenetsi zuen: “Atomizatu egi jarduten gara kulturaren munduan, bakoitza bere txikitik, askotan elkar ezagutu ere egin gabe. Saretzea garrantzitsua da, hortik bakarrik lortuko dugu kulturak gaur egun ez duen ikusgarritasuna”.

Olatz Osari egokitu zitzaion jardunaldia testuinguruan jartzea, *Kultur transmisioa, katebegi bat kulturaren unibertsoan* hitzaldiarekin. “Kultur transmisioa hezkuntza arautuan ez da gai isolatu bat, kultur transmisioaren gaiak ertz asko ditu, gaur ertz batean egingo dugu murgil, baina momentu oro ertz desberdinen arteko artikulazioa daukagu buruan, hari batetik bakarrik tira egitea ez da aski, osotasuna buruan izan behar dugu urrats kualitatiboak egiteko”. Beraz, Azpeitian abiatu zena datozen hilabete eta urteetan mamituko den lan-ziklo baten ernamun gisa aurkeztu zuen.

Hezkuntzan zertan da euskal kultura?

Hezkuntza arautuaren ertz horretan murgil egiteko, Iratxe Retolazak egin zuen euskal kultur transmisioaren egoeraren erretratua: lehenik hezkuntza arautuan Euskal Herriko sistemetan euskal kulturak duen lekuaren berri eman zuen; bigarrenik, euskal kulturaren ahulguneak eta arnaguneak identifikatu zituen, eta hirugarrenik, kultur hezkuntzaren erronken inguruko gogoetak partekatu zituen.

Hitzaldia abiatu zuen esanaz euskal kultur transmisioaren egoera alarma gorriak pizteko moduan dagoela, eta bere esperientzia azaldu zuen, alarma horiek pizteko zergatiak azaltzeko: “Unibertsitatean daramatzadan 14 urteotan euskal kulturaren ezagutzan atzerapauso nabarmena ikusi dut D eredutik etorritako ikasleen artean. Ez dute ezagutzen euskal kultura”. Musikaren adibidea jarri zuen irakasleak: “Musika zaleak diren ala ez galdetuta, % 90ek eskua altxatzen dute, baina euskarazko musika entzuten duten ala ez galdeuta, % 30-40k bakarrik erantzuten dute baietz”. Beste bi galdera ere egiten dizkie Retolazak ikasleei euskal kulturaren inguruan: “Euskal kulturaren imaginarioarekin lotzen dituzten ideia positiboak eta

negatiboak jar ditzatela eskatzen diet, gustatzen zaiena eta ez zaiena esan dezatela. Ez dute ideia negatiborik ematen, baina hori ez da seinale ona; zerbait ezagutzen duzunean zerbait horren alde onez gain txarrak edo gustatzen ez zaizkizunak esateko gai zara, 'idazle hau bai baina beste hau ez', adibidez. Baina ez dute ezer txarrik ikusten, ez dutelako euskal kultura ezagutzen”. Euskal kultura zerekin lotzen duten ere galdetzen die gazteei irakasleak, eta erantzunak estereotipatuak izan ohi dira: “Euskal kulturaren imaginario oso estereotipatuak dituzte, komunitate-sen edo irudi folkloriko-turistikoekin lotzen dute euskal kultura, sukaldaritza dantzaren pare jarritz”.

Kulturaren ezagutzan gertatu den atzeraldiarekin batera, euskararen erabilera atzerapauso bat gertatu dela igerrri du ikerlariak. Kezkatzeko moduko datua eman zuen: “Unibertsitateko ikasleen artean komunikazio-gaitasuna duten ikasleek, klasean ere ez dute euskaraz hitz egiten. Testu bat euskaraz komentatzeko esaten diezunean, gaztelaniaz hitz egiten dute. Duela 10-15 urte hori ez zen gertatzen: euskaraz ikasteko hautua egin zuenak konpromiso horri eutsi egiten zion, orain ereduak euren aukeratu badute ere, euskaraz hitz egitea ez dute konpromisotzat hartzen”.

Indarguneak hezkuntza arautuan

Nola iritsi gara egoera honetara, euskarriak eta egiturak ezarri baldin badira euskal kultura eskoletan transmititzeko? Bada, Retolazak teoriatik praktikarako arrakala nabarmendu zuen: “Paperean idatzi dira hainbat neurri, eta neurri sendoak lirateke idatziz gain benetan praktikara eramango balira, baina ez dira eramaten”.

- Curriculumek zer diote? EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko curriculumei begiratu zien Retolazak, euskal kulturak zer leku duen ikusteko. Eta berez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikastetxeetako curriculumean du leku handiena euskal kulturak, EAEko curriculumean euskal kultura zehar-lerro izatea onartua baitago. Nafarroan, euskal kultura ez da zehar-lerro curriculumean, baina kultur-adierazpideek eta adierazpide artistikoek eta estetikak leku esanguratsua dute: “Kultur-eredu baten inguruan gehiago pentsatu duen curriculum bat da eta, oro har, materialetan ikus daitekeen bezala, kulturaren inguruan Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban baino ikuspegi garatuagoa dauka Nafarroako curriculumak”. Baionako unibertsitatean, UPPAn, Euskal Ikasketen graduan kultur kritikan trebatzen dira ikasleak eta berau indargunetzat du Retolazak, batetik euskal kulturaren

GAIA: KULTUR TRANSMISIOA



Argazkia: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

inguruko irakasgaiak jasotzen baitituzte ikasleek eta, bestetik, kultur ikerketen ingurukoak. “Gure indargunea Baionan dago, euskal kulturari buruzko ikasketak argiagoak dira han; Gasteizko Euskal Filologian euskal kultura ez da irakasgai”.

- Herri-ekimen ugariak hezkuntza arautuan kultura jorrazteko egitasmoak sustatu dituzte. “Elkarrekin beren borondatez egiten duten lan handiari esker badaude arnagune eta indargune garrantzitsu batzuk, baina euren egoera, kasu batzuetan jasangaitza da, eta hori ahulgune bat litzateke”. Haur eta Lehen Hezkuntzan Galtzagorrik egiten duen lana nabarmendu zuen alor honetan, esate baterako.

- Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Graduondokoa (HUHEZI). Berau sortu izana indargunetzat du Retolazak, “baina, norberak, gutxi batzuek, beren borondatez egiten duten formazio bat da”.

- Irakasleen Formazio jarraia: IRALE eta EIBZren lana nabarmendu zuen: “Irakasleak formatzeko guneetan literaturaren didaktikaren eta kultur transmisioaren inguruko interesa agertu dute azken urteotan, ekimen jakin batzuk abian jartzeraino (IRALEko irakasleen tutoriazioa HUHEZIREkin, EIBIZren Eskolako Literatur Kanona egitasmoa)”. Etengabeko formazioaren filosofiak onura batzuk ekarri dituela ikusten du UEUko ikerlariak,

“batetik, hezkuntza arautuan kultur formazioa jasotzeko ikastaroak eta ekimenak antolatu dira; eta bestetik, hezkuntza ez-arautuan kultur trebakuntzarako guneak sortu dira (irakurle taldeak, sormen-tailerrak...)”

Ahulguneak:

Indargune horiek izanik ere, Iratxe Retolazak hezkuntza arautuan kulturaren transmisioa bermatu ahal izateko euskarri eta egituretan ahulgune asko ikusten ditu. Honako hauek nabarmendu zituen:

- Euskara eta Literatura moduko ikasgaietan soilik jorratzen da berariak kultura (salbu eta Batxilergoko espezialitateetan). “HHn eta LHn zeharlerro nabarmenagoa da kultura, printzipioz. Bigarren Hezkuntzan kultura zeharlerro da, baina ez da benetan zeharlerro izan dadin lanik egin. *Euskara eta literatura* da ikasgaiaren izena, eta hizkuntza lantzen da, baina literatura ez. Selektibitatean, kultura oso gutxi eskatzen da eta askoz gehiago eskatzen da hizkuntzari dagokion atala. Hizkuntzaren irakaskuntza gramatikari lotua ulertzen da”.

- Irakaskuntza-materialen joera pedagogikoa: “Ikasleak ez dira trebatzen irakurtzen. Idurre Alonsok bere tesian jorratu zuen joera pedagogiko bat nagusitu dela euskal literaturaren irakaskuntza-materialetan: datu bibliografikoak lantzen direla eskolan, eta liburuak, irakurtzekotan, etxean

GAIA: KULTUR TRANSMISIOA

Eskolan ere kultura erdigunean izan dadin

irakurtzen direla. Beraz, irakurtzen ez da trebatzen ikaslea. Klasean hizkuntza landu behar denez, literatura etxerako lan gisa gelditzen da”. Retolazaren ustez, ikasleak irakurtzen ez trebatzea ahulgune garrantzitsua da: “Matematika-ko irakasgaian ez genuke esango ‘etxean egin ariketak eta gero zeuk ikusi egoki egin dituzun... bada berdin beharko luke literaturan”.

- Euskal kultura euskara-jabekuntzaren zerbitzura jarri ohi da: “Euskara ikasteko eta irakasteko tresna gisa sustatzen da euskal kultura”. Eta honek, emaitza kaskarrak eman ditu: “Denbora guztian erraztearen ariketak ari gara egiten, eta bai hizkuntza-mailan eta kultura-mailan, ez-gaitzen ari gara ikasleak”.

- Ez da euskal kulturaren curriculuma zehaztu, garatu eta gauzatu: “Euskal kultura zehar-lerro bihurtzeko hezkuntza-planik ez dago. Lekuan lekuko herri-ekimen esanguratsu eta arrakastatsuak badaude ere, ez dago egitasmo orokor iraunkorrik”. Hezkidetzarekin parekatu zuen Retolazak: balio horren sustatzeko planak ere hutsune asko dituela jakin arren, administrazioak ikastetxeei hezkidetzaz arduratzeko pertsona izendatzeko eta plana gauzatzeko epeak jarri izana nabarmendu zituen, “kulturaren ez da hori gertatu; ez dago jarraipenik. Curriculumean esaldi-multzo bat besterik ez da euskal kultura zehar-lerro izan behar dela esatea”.

- Euskal kultura irakasteko material didaktiko eta baliabide adosturik ez dago. “Administrazioaren dekretuak dio hiru probintzia horietan [Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan] kulturak zehar-lerro gisa aurrera egin behar duela, baina ez du egituratu materialik”.

- Unibertsitateak ez ditu irakaskuntzako profesionalak euskal kulturaren trebatzen: Unibertsitateak trebatzen ditu irakaskuntzako profesionalak eta komunikazio-esparruko profesionalak, eta oro har, ez dago euskal kulturaren transmisioa bermaturik (salbu eta UPPAn)”. Retolazak aipatzen du irakasle oro kultur-eragile dela, baina ez daukatela horren kontzientziarik: “Irakasle oro kultur eta euskara irakasle da. Baina ez da egin kultur-eragile izateko kontzientziarik ere. Badirudi berez etorriko dela; eta ez da hala. Hizkuntza tresna gisa erabiltzen dudana neurrian, hizkuntza-eredu bat ematen ari naiz irakasle gisa ikasleei. Beraz, kultur-eragile naiz, eta erabaki dezaket zer kultur-eredu zabaltzen dudana, matematikak azaltzeko, edo gizarte-gaiak edo natur gaiak azaltzeko, baina honen kontzientziatorik ez da egin, eta ez da materialik eta baliabiderik ere eskura jarri”.

- Hezkuntzako kultur eragileen arteko sare sendorik ez dago (ez herrialdeka, ez herrialdeen artean ere), eta herri-ekimenak autogestionatuak izan ohi dira, eta beraz, iraunkortasuna ez dago bermaturik.

Irakaslea ez badago formaturik euskal kulturaren nola transmitituko die ikasleei? Galdera horretan barnebiltzen dira hezkuntza arautuan transmisioak dituen ahulguneak. Lehen katebegian egiten da huts: “HH, LH, DBH eta Batxilergoko irakasle guztiak pasa behar dira unibertsitateetara, baina irakaskuntzako profesional euskaldunak ez ditugu formatzen euskal kulturaren. Erasmusak datozenean euskal kulturari buruzko hautazko irakasgai bat daukate, baina bertakoek ez daukate halako hautazkorik”. Berariaz euskara eta euskal literatura irakatsi behar duten irakasleek ere, ez dute behar duten formazioa jasotzen: “Kultur-eragile izateko formaziorik ez dago. ezta Euskal Filologian ere. Euskal Filologia zena Euskal Ikasketak dira, baina filologia huts horren ikuspegitik trebatzen dira irakasleak. Euskal kulturaren inguruko ezagutza nahikorik ez da jasotzen. Baionan euskal ikasketetan aukera handiagoa dago”.

Zertarako sustatu kultura irakaskuntzan?

Kultur-hezkuntzaren erronken inguruko gogoetekin amaitu zuen UEUko ikerlariak bere hitzaldia: Eskolan euskal kultura sartu behar bada, esperientziaren eta bizipen kulturalen bidetik egitea proposatzen du irakasleak: “Esperientzia kulturalak iraunarazten dituzte bizirik kultur sorkuntzak eta kultur gileen ekarpenak”. Retolazarentzat garrantzia duena ez da gazteek izen bat edo datu batzuk ezagutzea, garrantzitsua kultur-adierazpide batekin izandako esperientzia da: “Nire ikasleek agian ez dakite zein den Mikel Laboa, baina niretzako kezkarriagoa da *Zilbor hestea* kantua behin ere entzun ez izana. Kantu horrek eragin badio zerbait, eta bere barne mundua elikatzeko balio izan badio, hori da benetan esanguratsua, emozio hori eragin dio kantua”. Hezkuntzak, izen kateak eta datu pilaketak transmititu beharrean, kulturari loturiko esperientziak bizitzeko espazio eta denborak eskaini beharko lituzke. Kultura ez baita jakintza-transmisio bat soilik.

Kultura, munduan lekua hartzeko eta egiteko bideetarikoa bat da, Retolazarentzat: “Kultur esperientziak eta kultur imajinarioek munduan leku bat egiten laguntzen digute: barne-mundua elikatzen dute, zentzuaren eraikuntzan laguntzen digute (gure buruaren eraikuntzan laguntzen digute, baita mundua ulertzen ere), trukea sustatzen dute,

GAIA: KULTUR TRANSMISIOA

jolaserako espazioa sortzen dute, arakatzera gonbidatzen gaituzte".

Norbanakoa eta komunitatea elikatzen ditu beraz kulturak. Baina horrez gain, pentsamendu kritikoa eta irudimena sustatzeko tresna da kultura. "Munduaren aurrean ernarazteko tresna bat da, pertsona guztiok behar dugu irudimena, egoera aldatuko dela pentsatzeko behar ditugu kulturak eskaintzen dizkigun erreferenteak. Irudimena oso tresna garrantzitsua da ikusteko mundua ez dela zertan izan orain ikusten dugun bezala, eta nik, pertsona bezala, badudala aldatzeko aukera. Beraz, kultura bizirauteko oso tresna garrantzitsua da."

Bidezidorretatik

Diagnosia eginik, zazpi lurraldeetako hezkuntza-administrazioek euskal kulturaren transmisioaz diotena errepasaturik, eta alor bakoitzean administrazioetatik eta herri-ekimenetatik dituzten indarguneak eta ahulguneak nabarmendu ostean, hezkuntza arautuan mugak gainditzeko sarea nola eraiki pentsatu zuen hizlariak: "Hezkuntzaren eremuan oso garrantzitsua litzateke materialak eta baliabideak sortzea, baina garrantzitsua da, baita ere, esperientzia kolektiboak sortzea: sormen-lanek taldeko kideen arteko komunikazioa eta harremana hobetzeko bidea, elkar ezagutzeko bidea eskaini behar dute". Horretarako, truketarako espazio aproposak sortzea proposatzen du: "Kultura gelara ermaten dugunean oso garrantzitsua da esperientzia kolektiboak sortzea: sormen-lanek sorturiko emozioak, sentsazioak, usteak edo iritziak trukatzeko espazioak behar ditugu".

Behin markoa ezarrita, kulturgintzaren eguneroko

transmisioan lanean ari diren kultur-eragile, irakasle eta sortzaileek euren esperientzien berri eman zuten jardunaldian. Pantxika Telleria Elirale dantza konpainiako koreografoak arte eszenikoen alorrean ipar Euskal Herriko ikastetxeekin egiten dituen lanen berri eman zuen; Alberto Barandiaran Nafarroako Hezkuntza Departamenduko teknikariak Musikariak Ikastetxeetan programa aurkeztu zuen; Artaziak kolektiboko Andrea Arrizabalagak arte plastikoen eremuan hainbat ikastetxetan egindako esku-hartzeak ezagutarazi zituen, eta Amaia Irazustak EIBZk garatu duen Eskolako Literatur Kanonaren berri eman zuen. Literatur ulermena eta gozamina uztartzea helburu duen proiektu honen baliabide guztiak Nafarroako Hezkuntza Departamenduaren webean daude eskura.

Arratsaldean beste hainbat lekukotasun jaso zituzten: Mirentxu Oteiza Txantreko Eunate institutuko irakasleak bere esperientziaren berri eman zuen, Inma Muñoa Ikastolen elkarteko hizkuntza-egitasmoen koordinatzaile eta ikasmaterialen egileak ikastolen errealitatea aurkeztu zuen eta Axut! kolektiboko Ximun Fusch antzerkigileak eta Arantxa Hirigoien hezitzaileak *Zaldi Urdina* obrarekin egiten ari diren esperientzia azaldu zuten, ikasleak teatrorara eta antzerkia ikastetxeetara eramaten ari dira, eta dossier pedagogiko bat lantzen aurretik eta ondoren: "Artea hezkuntzan ez bada txertatzen, ez dira euskaldunak izango. Kontsumitzaile hutsak izango dira", azaldu zuen Fuschek.

Eguna ixteko, kultur hezkuntza eskolan gogoetagai izan zuten Bertsozalen elkarteko Mikel Artolak, Dantzan-eko Oier Araolazak, EHUko ikertzaile eta irakasle Haizea Barcenillak eta EHUko ikertzaile Nerea Permachek. Azken honek literaturak pertsonen garapen osoan izan dezakeen rola nabarmendu zuen.





“Gutxieneko formazioa beharrezkoa da, baina baita ausardia edukitzea ere; ausartu egin behar dugu gauza txikiak egitera”

ELKARRIZKETA: ESTHER URIA

AKTOREA ETA EHU-KO IRAKASLEA

Aktore profesionala da Esther Uria eta 20 urtetik gorako ibilbidea egin du profesional gisa telebistan nahiz antzerkian. 2008ko krisia iritsi zenean eta lana murriztu zenean, unibertsitatera itzultzea erabaki zuen eta Hezkuntza Bereziko eta Psikopedagogiako ikasketak egin zituen. Bitarte horretan antzerkian egina zuen ibilbideak ikasketekin zentzua zeukala ohartu zen, biak integratu zitezkeela konturatu zen: antzerkia eta garapen pertsonala nahiz soziala. Agosto

Boal zapalduen antzerkiaren sortzailearen liburuak ere irakurri zituen. Bide horretatik joz, baliagarri ikusten zuen antzerkia tresna pedagogiko gisa bai gizarte eta bai norbera eraldatzeko. Laz aurkeztutako tesian hori frogatu zuen: antzerkia baliagarria dela tresna pedagogiko gisa bizikidetzan edo elkarbizitza sustatzeko. Antzerkia curriculumaren barruan ikasgai gisa landu daiteke, eta baita egun dauden ikasgaietan antzerki-teknikak txertatuta ere.



Zure tesian antzerkia tresna pedagogiko gisa bizikidetzaz sustatzeko baliagarria zela frogatu zenuen. Zer-nolako ikerketa egin zenuen hori baieztatzerira iristeko?

Programa bat diseinatu nuen eta Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzako lau ikastetxetan jarri genuen martxan 2016ko urtarriletik maiatzera arte. Nolabaiteko bizikidetzaz arazoak zituzten ikastetxe publikoak ziren, kultur aniztasun handikoak, migrazio ehuneko altukoak eta bitarteko gutxi zituztenak ere bai. Aurretik programa pilotu bat egin genuen zentro batean 2015ean eta oso garrantzitsua izan zen geuk doikuntzak egiteko.

Zergatik hautatu zenuen Bigarren Hezkuntza? Arrazoi jakinik izan zenuen?

Bai. Batetik, trantsizio adin bat delako. Lehen Hezkuntzan esku-hartzeak eta didaktikak badaude, bitarteko asko daude. Nerabeen garaian ere badaude, baina gutxiago. Garai hori zubi garaia izaten da eta sarritan, trantsizio garaia izateagatik utzi egin daiteke, “hobe bere horretan uztea” esan ohi da.

Bestetik, adin horietan hainbat gertakari daudela ikusten genuen: bizikidetzako arazo handiak sortzen

dira, nortasuna eraikitzen ari dira, taldeak garrantzi handia hartzen du, bullying-a nahiz eta Lehen Hezkuntzan ere pasa Bigarren Hezkuntzan oso argi azaltzen da, norberak bere buruarekin gatazka asko izaten ditu eta horiek kanpoaldera proiektatzen dira... Bizikidetzaz lantzeko garai aproposa iruditzen zitzaidan.

Horrez gain, esan beharra dago erronka gisa ere hartu nuela. Badakit nerabeekin lan egiteak zailtasunak dituela, autokontrolatzea zaila dela zeure paperetik atera zaitezkeelako, pazientzia galdu dezakezulako eta abar. Baina ni “kamikaze” bat naiz eta erronka gisa hartu nuen.

Nolako izan zen esku-hartzea? Zer egin zenuen gazteekin?

Diseinatu nuen programak hiru fase zituen. Lehendabizikoari konfiantzazko fasea deitu nion. Helburua zen konfiantza eratzea eta taldea kohesioztatzea. Horretarako irudi-antzerkia erabili genuen. Antzerkiko teknika bat da, non hitza ez den erabiltzen, gorputza baizik; irudiak eratzen dira gorputzarekin. Adibidez, gai edo galdera bat proposatzen da eta horrek burura ekartzen dizun irudia egiten da taldeka edota banaka. Horrek berehalako pertzepzioa jasotzea eta

besteekin irakurtzea ahalbidetzen du, baina gorputzetik, emozioak aztertuz. Errealitatea aztertzeko modu bat da, hitzak erabili gabe. Aldi berean, fase honetan nerabeen ideiak jasotzen hasi ginen, hau da, sorkuntzarako baliagarria izango zen nerabeen materiala deitzen dioguna.

Bigarren fasea eraikitze-fasea izan zen. Nerabeen interesak gehiago sakondu eta aztertu genituen eszenak eraikiz eta inprobisazioaren bidez. Hainbat eszena eraiki zituzten eta fasearen bukaeran lau aukeratu zituzten. Ondoren nik lau eszena horietatik abiatuta testua edo gidoia idatzi nuen. Horretarako, beraien saioak edo eszenak grabatu egin nituen eta interesgarria izan zen, beraien eszenetatik literalki esaldi batzuk ateratzeko eta gidoian sartzeko balio izan zidalako. Horrela, euren materiala gidoian bertan sartuta geratu zen eta horretaz ohartu ziren haiek.

Hirugarren eta azken fasean eraikitako testuak ensaiatu eta antzerki-foforma egin genuen.

Lehen bi faseak eraikuntza prozesu kolektiboak izan ziren eta ni katalizatzailea edo laguntzailea izan nintzen. Azken fasean neu izan nintzen materiala josi zuena eta drama edo antzerki forma eman ziona. Egin

genuena antzerki-foruma izan zen, ez antzerki obra soil bat.

Zer desberdintasun ditu antzerki-forumak antzerki soilarekin alderatuta? Zein dira antzerki-forumaren berezitasunak?

Antzerki-forumak arazo bat edo batzuk planteatzen ditu eta bukaera ez dira konpontzen; bukaera irekita eta konpondu gabe geratzen da. Pieza edo emanaldia bukatzen denean forum bat egiten da, hau da, denen artean partekatzen den hausnarketa bat. Horretarako abiapuntua beti galderak izaten dira. Eta hortik abiatuta esanahia beraiek eraikitzea da garrantzitsua. Esate baterako, galderak honelakoak izan daitezke: Zer gertatzen da? Zein zen gaizkien pasatzen ari zen pertsonaia? Pertsonaiaren batek beste zerbait egin dezake momentu konkreturen batean? Zer?. “Honek hau egin dezake” esaten badute, proposamen hori eszenara eramaten dugu. Orduan, konturatu daitezke egin duten proposamen hori gauzatzea ez dela hain erraza. Enpatia esperimintatzen hasten dira, bestearen lekuan jartzen direlako. Hori antzeztu ondoren galdetu daiteke: arazoa konpondu al da? Zer gehiago egin dezakegu? Batek esan dezake “ostia bat eman”. Eta antzerkiaren bidez hori probatu daiteke, badaudelako hori probatzeko teknikak.

Galdera horiei erantzunez, egoera batean baino gehiagotan jartzen dira eta konturatzen dira badaudela beste alternatiba batzuk errealitatean edo gure portaeran txertatzeko. Izan ere, antzerkiak ikusteko moduko leku batean jartzen du ekintza jakin bat. Ekintza edo drama da antzerkiaren motorra. Dramarik, ekintzarik edo gatazkarik gabe ez dago antzerkirik eta ez dago bizitzarik.

Orduan, guk antzerki-forumean ekintza horiek elkarrekin aztertu genituen, ekintza bera antzerkiaren bidez gauzatuz eta ondoren galderak erantzunez. Esate baterako, “zer gertatzen da? Erreal da?” .

Zer emaitza atera zenituzten? Zein ondorio izan zituen esku-hartzeak? Lehendabiziko gauza da nola neuritzen den elkarbizitza. Hori zen eduki

genuen lehen arazo itzela. Elkarbizitzak dimentsio asko dauzka eta literaturak pistak eman zizkigun. Literaturak esaten du elkarbizitzaren alderdi bat konpetentzia sozio-emozionalak direla: elkarrekiko erlazioak hobetzen badira, bizikidetzan eragina dauka. Orduan, aldagai horietan oinarritu ginen, aldagai sozio-emozionaletan: enpatia, asertibitatea, emozioak, prosozialtasuna, autoestimua... Horrelako aldagaiak hartu genituen funts bezala eta horiek aztertzen hasi ginen.

Hala, emaitzak aztertzekeo testak pasa genituen ikasleen artean, eta baita elkarriketak egin ere ikasle, irakasle eta nire laguntzaileei (eskola bakoitzean kolaboratzaile bolondres bat eduki nuen saioetan laguntzeko). Ondorio nabarmenenak ikasleen artean gertatu ziren, kosmos horretan, taldekideen arteko erlazioen barruan, ez hainbeste ikasleen eta irakaslearen arteko harremanean.

Enpatia izan zen ondorio nagusia. Prozesu honek lagundu egiten du bestearen lekuan jartzen. Eszenak egiterakoan beraien errealitatetik abiatzen ginenez, beraien eguneroko gaitetatik, bestearen lekuan jartzeko aukera ematen zien antzerkiak eta hori azpimarratzen zuten. Batek hala zioen: “Ni ez naiz matxista, baina matxistaren papera egin dut eta nolabait ulertu egiten dut pertsonaia hori. Ez dut justifikatzen, baina ulertu dezaket zer pasa daitekeen matxista baten burutik”. Eta berdin biktimaren papera egiten dutenean edo irakasle baten papera egiten dutenean. Oso interesgarria da rol horietan jardutea.

Azken finean, elkar ezagutzeko beste modu bat eskaini zien antzerkiak, besteak ezagutzeko aukera gehiago. Eta nolabait beste leku batetik erlazionatzeko positibitatea ere bai. Askok azpimarratzen zuten bestearen ideiak errespetatzea, ideia guztiak kontuan hartzea... Eszena bat eraikitzekeo ados jarri behar zuten, negoziatu egin behar zuten eta guztien ideiak kontuan hartu, epaiketarik gabe.

Ondorio nagusia, orduan, enpatia bizitzeko aukera izan zutela. Beste zer ondorio azpimarratuko zenuke? Beste bat lotsarena izan zen. Antzerkiak lotsa galtzen lagutzen du, pixka

“Antzerkia tresna pedagogiko gisa gaurtik hasita martxan jar daitekeen zerbait da. Oso ondo funtzionatzen duen metodologia da”

“Antzerki-forumak arazo bat edo batzuk planteatzen ditu eta bukaera ez dira konpontzen; bukaera irekita eta konpondu gabe geratzen da. Pieza edo emanaldia bukatzen denean forum bat egiten da, hau da, denen artean partekatzen den hausnarketa bat, eta hausnarketa beti galderetatik abiatzen da”

“Azken finean, elkar hobeto ezagutzeko beste modu bat eskaini zien antzerkiak, besteak ezagutzeko aukera gehiago”



bat behintzat. Antzerkiaren bidez hitz egiten ausartzen hasi ziren. Beraien artean komentatzen zuten: “Orain Jonek hitz egiten du”, “orain Mirenek gehiago hitz egiten du”. Batzuek ez zuten zenbait ikaskideren ahotsa ezagutzen. Lotsa galtzearen efektua indar handikoa eta suspertu egin zena izan zen, asko azaltzen zen hitza zen. Egia esan, gazteentzat oso garrantzitsua den alderdia da, barregarri geratzearen sentsazio oso barneratuta baitaukat.

Beste ondorio bat askatasunarena izan zen. Haien iritziak agertzeko eta emozioak azaltzeko askatasuna aipatzen zuten.

Atentzioa eman zidan ondorioa izan zen talde batean gertatu zen nesken ahalduntzea. Talde batean polarizazioa zegoen nesken eta mutilen boterearen artean eta neskak indarra hartzen joan ziren: batek ileari kolorea eman zion, lotsatiak ziren bi neskek rap bat abestu zuten, beraiek idatzitakoa eta nahiko erreibindikatzaila zena.

Beste ondorio bat autoerrealizazioarena izan zen, hau da, taldeko erlazioen aldeko mugimendua bestea ezagutzeko tresna gisa. Irakasleek ere ikasle batzuk beste modu batera edo beste testuinguru batean ezagutzeko aukera izan zuten. Ikasle bat gauza batean ez da nabarmentzen, baina beste batean bai. Irakasleek horrelako esku-hartzeak nahiko beharrezko ikusten zituzten. Esperientzia positiboa izan zela zioten, errepikatze modukoa.

Antzerkiak edo gidioak egiterakoan beraiek proposatutako ideietan oinarritu zinela aipatu duzu. Zein dira nerabeei interesatzen zaizkien gai horiek?

Jazarpena edo indarkeria asko atera zen, zeharkako gaia dela esan daiteke. Zentro batean drogen kontsumoa atera zen eta horren inguruan sortzen diren arazoak. Beste batean sexu identitatea landu zuten eta horren barruan bisexualitatea. Eta bitxia izan

zen gai horri buruzko antzerkia landu eta ondoren hausnarketa egin genuenean atera zen iritzia: bisexualitatea homosexualitatea baino gutxiago onartzen dute. Gauza bat edo bestea izatea bai, baina bisexualitatea ez dute oso ondo ulertzen.

Atera zen beste gai bat arrazakeriarena izan zen. Gogoratzen naiz elkarrizketa batean ikasle batek esan zuela gauzak aldatzen ari zirela, orain ez ziotela “matxu pitxu” deitzen.

Beste ikastetxe batean oso argi azaldu zen sexu-jazarpena edo ziber-jazarpena, teknologiarekin zerikusia duena.

Beste zentro batean gela baten autoestimua oso baxu zegoen, “ton-toen gela” zirela sentitzen zuten eta emozionalki asko bizitzen ari ziren. “Zer izan nahi dut nik?”, “Zer ez didate uzten izaten?”, “Zer izan nahi dut heldua izatean eta zer eskatzen dit sistemak?”, “Zer zentsura aurkitzen ditut nire bidean?”, eta horrelako galderak atera ziren.

Bada atera zen beste gai bat ere, desegituratutako familia: nola eragiten dien bikotearen arteko gatazkak seme-alabei, nola bihurtzen diren jaurtizko arma edo pilota...

Gai oso potoloak, bizipen aldetik gogorak. Zure erronka gai horien gaineko gidioak egitea izan zen. Zu izan zinen gaia fokatu zenuena. Nola moldatu zinen hori egiteko?

Haien eszenak asko ikusi nituen eta grabatu egin nituen, esaten zutena eta esateko modua ahalik eta gehien errespetatzeko. Hori errespetatu nahi nuen, baina aldi berean, antzerkiaren hizkuntzara pasa. Horretarako, nire uztako elementuak egon ziren, baina batez ere argi gelditu behar zuen beren ideietatik eta materialetatik abiatuta egina zegoela gidioa. Beren materiala errekonozitu behar zuten antzerkia ikusitakoan. Horregatik, gidioa irakurtzeko eskatu nien, haien iritzia eta onospena edukitzeko. Egokiena gidioa elkarrekin idaztea izango zen, baina luzeegi joko zuen.

Nola sentitu ziren gazteak prozesuan zehar? Parte hartzeko gogoz?

Denetik. DBHko 2. maila oso maila zaila da. Ez daude ez hemen eta ez han. Oso galduak daude, oso barrei-

tuta. Ikastetxeak aukeratu eta gelak hautatu ondoren, parte hartzeko onarpena eskatu zitzaion. Baina kontua da esku-hartzea eskola orduetan egin zela, tutoretza orduetan, eta batzuk inertziak behartuta sentitu zirela. Azken batean, curriculumaren barruan egoteak nolabaiteko derrigortasuna ematen dio. Orduan, hori aldagai garrantzitsua da. Zeren nire eginkizunetako bat gutxien motibatuta zeudenak motibatzea izan zen. Izan ere, batzuei ez zaie gustatzen antzerkia, edo ez dute eszenara igo nahi, edo pasiboak dira, edo boikoteatzaileak. Eta hori kudeatzea zaila da, zeure zaurgarritasunarekin aurkitzen baitzara.

Denek ez zuten motibazio bera eta horrek parte hartzeko hainbat modu probokatu zituen. Hau da, oso ongi adierazi nien antzerkia ez zela antzeztea soilik, baizik eta beste rol batzuk ere bazeudela: jantziak antolatzea, cateringa, zuzendariari laguntzea, eszenatokia prestatzea... Eta horrekin lasaitu egin ziren. Haiek banatu zituzten rolak. Eta zenbait kasutan borrokatu ere egin ziren protagonista izateko. Kasu horietan nahi zutenen artean banatzen zuten pertsonaia bera.

Nerabeekin lan egitean etengabeko zalantza-egoera egoten da eta helduak eroso sentitu behar du egoera horretan. Denbora guztian dago ziurgabetasun hori, denbora guztian. Horregatik, beharrezkoa da saiora oso egituratuta joatea, ordena ematea, hori baita nerabeek eskatzen dutena, gero, beraien identitate borrokagatik ordena horren kontra joateko. Ordena edo egitura behar dute, gero desegituratzeko. Ordena behar dute orden horren kontra joateko. Hori hala da eta onartu beharra dago. Eta behin hori ulertuta, pixka bat errusiar mendi bat bezala da, gora eta behera ibiltzen zara. Hori prozesuaren parte da.

Noski, egoera horietan batzuetan pazientzia galtzen da, jarrera desegokiak erabili... Horrelakoetan pentsatu ohi dut "non dago nire pedagogia, ikasi dudana guztia...". Baina gauza bat teoria da eta beste bat praktika. Teoria ondo dago, baina errealitatearekin topo egitean ahal duguna egiten dugu. Teoria eta praktikaren arteko gatazka hori bizi dugu, zer egiten ari naiz, neure buruari kritikak... Mugan

jartzen gara testuinguru honetan, ez baita erraza.

Antzerkia tresna pedagogiko gisa erabiltzean hainbat teknika erabiltzen dituzu. Aipatuko dizkiguzue batzuk?

Jokoak erabiltzen dira teknika gisa, batez ere berotzeko eta hasierako fasean kohesioa sortzeko. Baita ere kontzentrazioa lantzeko eta saioak ixteko. Adibidez, saioa ixteko eta ebaluazioa egiteko bakoitzak hitz bakar bat esatea izan daiteke.

Irudi-antzerkia ere hor daukagu, zapalduen antzerkitik datorrena.

Forum-antzerkia, esate baterako, oso teknika aproposa da gatazkak lantzeko. Gatazka bat hartu, taula gainean jarri eta ondoren landu egin dezakezu. Benetako gatazka bat sortuzenean erabili nuen, esate baterako.

Talde txikitik eszenen sormena edo eraketan oinarritu nintzen batik bat. Gai edo egoera batetik abiatuta, zerbait sortu behar da eta aurkeztu.

Aulki beroaren teknika da beste teknika bat. Pertsonaia aulki batean esertzen da eta pertsonaiari galderak egiten zaizkio. Pertsona horren motibazioa esploratzeko erabili ohi da.

Pentsamenduen azterketa deitutako teknikan, eszena batean "geldi!" esan eta gelditu egiten da. Une horretan pertsonaia hori zer pentsatzen edo sentitzen ari den esan behar da, eta zer esango lukeen une horretan. Teknika honekin audientzia gidoilari bihurtzen da.

Eszenara salto eta inprobisatu adibidez. Antzezten ari diren eszenara igotzen nintzen bat-batean eta pertsonaia berri bat antzezten nuen. Estimulatzeko erabiltzen nuen.

Beste teknika bat rolean idaztea da, pertsonaia bat hartu eta norberak pertsonaia horretatik idaztea.

Teknika horiek denek beste ikasgai batzuek ez duten ezaugarria dute: gauza bat da gatazka bat ikustea eta beste bat interpretatzea edo antzeztea. Antzerkiak beste plus bat ematen duela esan daiteke?

Bai, hala da, dena gorputzetik pasatzen da antzeztean. Gatazka baten gaineko edo gai baten inguruko aholkua ematea oso erraza da, esatea

“Ikasleen eszenak asko ikusi nituen eta grabatu egin nituen, esaten zutena eta esateko modua ahalik eta gehien errespetatzeko. Argi gelditu behar zuen haien ideietatik eta materialetatik abiatuta egina zegoela gidoia”

“Denek ez zuten motibazio bera eta horrek parte hartzeko hainbat modu probokatu zituen. Hau da, oso ongi adierazi nien antzerkia ez zela antzeztea soilik, baizik eta bazeudela beste rol batzuk: jantziak antolatzea, cateringa, zuzendariari laguntzea, eszenatokia prestatzea...”

“Nerabeekin beharrezkoa da saiora ondo egituratuta joatea. Ordena eta egitura behar dute, gero desegituratzeko”



oso erraza da. Baina gorputzetik pasatzean beste gauza bat da. Dewey jarraituta, esperientzian oinarritutako ikasketa-prozesua da, esperimentatzen duzun pedagogia da. Gorputzetik eta emozioetatik pasatzen dena nekezago ahanzten da eta eraginkorragoa da. Hori baimentzen du antzerkiak.

Horregatik, edozein ikasgaitan erabili daitezkeen teknikak dira. Adibidez, rolean idaztea interesgarria da Historia lantzeko. Plus hori ematen du antzerkiak.

Batzuetan gertatzen da, eta guri forum batean gertatu zitzaigun: bazegoen eszena bat non pertsonaia bat oso bortitz zegoen eta biraoka ari zen etengabe. Beste batek hain bortitza ez izatea planteatu zuen, ez botatzea madarikazioak. Baina proposamen hori egin zuena antzeztera ateratzen, gauza bera egiten bukatu zuen, biraoka. Ez da hain erraza. Emozioek eraman egiten gaituzte eta bizitza

ez da hain erraza. Oso interesgarria da pedagogo batek teoriatik esaten diguna; pedagogia demokratikoa izan behar dugula, pazientzia, hau gertatzen denean hori egin dezakegula... Baina errealitatean jartzen garenean arazoak dauzkagu. Ekintzatik pasatzea beste gauza bat da.

Orduan, antzerkiari esker besteen begirada eduki dezakegu, *feedback*-a ematen digu, ekintzan jartzen gaitu eta besteekin hausnartzeko aukera ematen digu. Baina beti emozioetatik pasaz.

Eta edozer gauza pasa daiteke emozioetatik: Ingelesa, Literatura, Kimika... Askok dira aitortzen dutenak hobe dela bizipenetatik lantzea. Eta teknika horiek hori ahalbidetzen dute.

Edozein irakasgaitako irakaslek erabili ditezkeen teknikak dira. Irakasleak horretarako prest ikusten dituzu?

Teknika guztiak jakin behar dira? Ez.

Teknika bat aplikatzearekin bakarrik lortu daiteke ikasketa esanguratsuago bat. Irakasleei aipatzen diedanean ea zerbait aplikatuko luketen, izutu egiten dira. Agian formazioa behar da, ados nago, gutxieneko formazio bat beharrezkoa da, baina baita ausardia edukitzea ere. Formazioa jaso ondoren ausartu egin behar da gutxienez gauza txiki bat egitera.

Denok behar dugu ausardia. Neuk ere ausardia behar dut antzerkiko ikastaro bat emateko Hik Hasiko Udako Topaketetan. Lehendabiziko aldiz ikastaroa eman behar nuenean beldurra sentitu nuen, nahiz eta formazioa eduki, nahiz eta esperientzia eduki... salto egin behar nuen. Formazio txiki bat behar da, baina gero hori praktikan jartzen ez baduzu, formazioa edo irakasle bezala ez duzu ikasiko. Hanka-sartzeak beti egingo ditugu, baina beti dago hobetzeko bide bat, eta egiten dena ondo egongo da akats eta guzti ere. Ez dago beste modurik.

Edonola ere, formazioa behar dela esan dut, baina ez gradu oso bat. Norberak jarriko du bere neurria: zein punturaino irakurri nahi duen gai honi buruz. Ariketa pila bat daude liburuetan eta teknika batzuk ikastea posible dela uste dut.

Ikasleen elkarbizitzarako onuragarri dena, irakasleen elkarbizitzarako ere hala izan daiteke, eta oro har, jendar-tearen elkarbizitzarako.

Bai. Nire lehen formazioa zapalduen antzerkia edo gizartea eraldatzeko antzerkiaren inguruan egin nuen. Eta hori norberaren bizitzan aplikatzeko zen. Antzerki-teknikak norberaren gatazkak lantzeko erabili daitezke.

Augusto Boalek zapalduen antzerkia tresna politiko gisa erabili zuen. Zapalduak zeuden kolektibo horiekin iraultzaren entseguak egin zituen antzerkiaren bitartez, antzezten egiten zuten iraultza nola egin zezaketen errealitatean.

Nire formatzaile Hector Aristizabalek esaten zuen bezala, egiten dugun antzerkia ez da terapia, baina terapeutikoa izan daiteke. Kirola bezala; ez da terapia, baina terapeutikoa izan daiteke. Hori da ideia. Lotsa galtzea terapeutikoa da. Eta neuk neure burua

hobeto ulertzea ere bai, terapeutikoa bihurtzen da.

Oso interesgarria izaten da eszena bat egiten denean berriz errepikatzea pertsonaiak aldatuz. Zeren pertsonaien artean botere desberdintasuna dago: irakasle eta ikasleen artean boterea irakasleak dauka objektiboki. Eta horren kontziente izatea oso garrantzitsua da. Hori da nik galdetzen dudana: konturatzen al zarete nola dauden jarrita gorputzak? Eta roletan nork dauka boterea? Gatazken kudeaketarako norbere bizitzan horren kontziente izatea oso garrantzitsua da. Alegia, gatazka batean jakitea objektiboki nork duen botere gehiago, gero hori kudeatzeko, alternatibak ikusteko, kamikaze batzuk bezala ez joateko, kikilduta ez geratzeko... errealitate horretan zer egin dezakegun ikusteko. Horretarako antzerkia oso tresna baliotsua da.

Antzerkia curriculumaren barruan ala aparteko zerbait bezala? Zer deritsozu egokiena?

Curriculumaren barruan sartzen baldin bada, nahiz eta antzerkia libreagoa eta beste metodologia batean oinarritutakoa izan, argi izan behar dugu beharrezkotasun hori izango duela eta beste ikasgaietan bezala batzuk ez direla motibatuta egongo.

Curriculumaren barruan kokatuta, nola izango litzateke antzerkia ikasgai modura? Nolakoa izango litzateke errutina hori? Nolakoa izango litzateke ebaluazioa? Galdera horiek denak datozkit burura.

Edonola ere, curriculumean txertatu-ko balitz, bi modutara izan daitekeela uste dut: ikasgai modura edo tresna pedagogiko gisa. Tresna pedagogiko gisa gaurtik hasita martxan jarri daitekeen zerbait da. Ikasgaiak hor daude eta metodologian aldaketak egitea da kontua; alegia, antzerki teknika batzuk sartzea ikasgai hori lantzeko. Oso ondo funtzionatzen duen metodologia da.

Beste aukera ikasgai modura ezartzea izango litzateke. Kasu horretan, nola tratatuko genukeen pentsatu behar da. Curriculumaren barruan oinarritzko konpetentziak lantzen ari gara eta hori ezin dugu ahaztu. Ez gara ari aktoreak eraikitzen, baizik

eta pertsonak. Orduan, helburu hori ezin dugu begien bistatik kendu. Hori kontuan hartu beharko litzateke. Eta hortik abiatuta, adin bakoitzean zein teknika edo estrategia erabili erabaki beharko litzateke, adin bakoitzean antzerkia modu desberdinetan erabili daitekeelako. Adibidez, nerabezeroan kreazio kolektiboa oso aproposa izaten da. Baina berriro diot, ahaztu gabe pertsonak garatzen ari garela, ez aktoreak, horretarako arte dramatikoko eskola baitago.

Donostiako Zurriola ikastolako esperientzia ezagutuko duzu. Antzerkia curriculumean sartuta daukate eta urteak daramatzate hala lantzen.

Ezagutzen dut esperientzia bai, eta oso interesgarria iruditzen zait. Zurriolan ikuspegia antzerkia eraikitzea edo emanaldi bat egitea da, produktua. Oso ondo deritzot, primeran, garaipen bat iruditzen zait, eta seguru nago hori landu bitartean erlazioak, espresioa eta beste hainbat gauza landuko dituztela. Ibilbide hori egin du Zurriola ikastolak eta jada bere nortasunari txertatuta dago, historikoa bihurtu da, ezin dugu ulertu Zurriola antzerkirik gabe. Baina nik beste ikuspegi bat eman diot antzerkiari nire ikerketan; ez gelditzea antzerki eraikuntzan soilik, baizik eta gatazkek bideratzeko eta elkarbizitza hobetzeko baliatzea.

Gertatzen dena da antzerkia lantzeko profesionalen falta dagoela. Zeren irakaslea animatuko ote da hori egitera? Curriculumaren arabera, DBH 4. mailan antzerkia hautazko bezala eskaini dezakete ikastetxeek, baina gehienek ez dute aukera hori jartzen horretarako pertsonarik ez daukatelako. Formakuntza beharra dago.

Antzerkia lantzeak eraginik ba al du antzerkia ikustera zaletzeko? Beste modu batera esanda, publikoa edo ikusleria sortzeko balio al du?

Seguraski baietz. Nik uste dut aipatutako guztia lantzean publikoa garatzen ere ariko garela, hau da, antzerkira joateko zaletasuna ere garatzen dela. Hori garrantzitsua da, eta ez antzerkiaren kasuan bakarrik, artean orokorrean baizik. Hori ere elikatzen ari gara hau dena lantzean.

“Gorputzetik eta emozioetatik pasatzen dena nekezago ahanzten da eta eraginkorragoa da. Hori baimentzen du antzerkiak”

“Edozein ikasgaitan erabili daitezkeen teknikak dira antzerkikoak. Adibidez, rolean idaztea interesgarria da Historia lantzeko”

“Antzerkia ez da terapia, baina terapeutikoa izan daiteke. Lotsa galtzea terapeutikoa da, eta norberak bere burua ezagutzea ere bai, terapeutikoa bihurtzen da”

“Curriculumaren barruan oinarritzko konpetentziak lantzen ari gara. Ez gara ari aktoreak eraikitzen, baizik eta pertsonak. Hori ezin dugu ahaztu”

ESPERIENTZIAK

SOLASALDI LITERARIOAK

Solasaldi literarioak Haur Hezkuntzan

Komunikazio-ekintzetako bat elkarrekin irakurtzea da, eta, horretarako, baliabide paregabeak dira ipuinak Haur Hezkuntzan. Esperientzia honen helburu orokorra Haur Hezkuntzako zeharkako oinarrizko kompetentziak eta esperientzia-eremuak lantzeko (5 urteko ikasgelan) solasaldi literarioen ekarpena eta baliagarritasuna baloratzea da.

Komunikazio-ekintzetako bat elkarrekin irakurtzea da, eta, horretarako, baliabide paregabeak dira ipuinak Haur Hezkuntzan. Ipuinak ilustratuak, letra handikoak eta orriko hitz gutxikoak izatea komeni da, eta testuaren eta irudiaren artean loturak izatea, umeak inoiz ikusi edo bizi ez dituen objektuak eta esperientziak ikus ditzan (Goikoetxea eta Martínez, 2015). Ipuina beti izan da inguruan dituen errealitate askotarikoak eta liluragarriak azaltzeko gizakiak erabili duen narrazioa. Irakurketa partekatuak zuzeneko eraginak ditu ahozko hizkuntzaren garapenean, testuaren ezagutzan, zeharkako alfabetatze goiztiarrean eta irakurketaren ikaskuntzan. Liburueta hiztegi aberatsarekin, helduen eta haurren arteko elkarrekintzekin, sortzen dituen esperientzia emozionalekin eta idatzizko testuaren presentziarekin elikatuko da haurra.

Irakurketak planifikatuta egon behar du ikastetxean, eta ezinbestekoa da espazio eta denbora nahikoa eskaintzea eta ez mugatzea. Irakasleak era guztietako irakurketak sustatzeko



GOIATZ ARAMENDI

Haur Hezkuntzako irakaslea

bideak eta baliabideak bilatu behar ditu, irakurketarako ikasleak dituen gustuak kontuan hartuta. Liburutegia ikasteko eta irakasteko eguneroko agertoki hurbila da (Aguiló, Florit

eta Trobat, 2013), eta, gaur egun argialetxeek egiten duten eskaintza zabala aprobeztatuz, liburu ego-kienekin elikatu behar da. Ikasturte guztirako edo aldi baterako liburuak egon daitezke, eta, azken horien kasuan, curriculumeko hainbat alderdi jorratzeko erabili daitezke. Materiala eskuragarri egongo da ikasle, irakasle eta komunitate guztiarentzat.

Irakurketarako baliabideen hurbiltasunak informazio beharra aseko du, gaiei buruzko jakin-mina sortuko du, eta irakurtzeko ohiturak bultzatuko ditu. Azken finean, Haur eta Lehen Hezkuntzako edozein irakasleren helburu nagusietako bat, euren ikasleak irakurleak, irakurle onak izatea da, eta gai eta tipologia askotako liburuak maitatzea eta estimatzea. Horretarako, espazio alai, motibagarria eta oso funtzionala izan behar du liburutegia ikasleentzat, eta ezinbestekoa da zeregin horretan ikasle partaide eta arduradun izatea.

Solasaldi literarioak: ikastola batean egindako ikerketa

Lan honen helburu orokorra Haur Hezkuntzako zeharkako oinarrizko

kompetentziak eta esperientzia-eremuak lantzeko (5 urteko ikasgelan) solasaldi literarioen ekarpena (baliagarritasuna) baloratzea da. Lehen aipatu denez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 237/2015 Dekretuko 3. artikuluan jasotzen denez, Haur Hezkuntzaren xede nagusia haur guztien garapen osoa eta orekatua lortzea da. Hori horrela izanik, helburu garrantzitsu hau lantzeko estrategia metodologikoak eta jarduera egokiak landu behar dira. Dekretu horren zortzigarren artikuluan zera dio:

2.- *Kompetentzien araberako pedagogiak ezaugarri nagusi hauek ditu:*

a) *Problema-egoerak konpontzea, eskura dauden baliabideak modu integratuan erabiliz.*

d) *Oinarrizko kompetentziak garatu ahal izateko, egoera errealerako jarduerak proposatu behar dira, eguneroko bizitzako problema nagusiak jakintzarekin lotuz.*

e) *Oinarrizko kompetentziak gartzeko aukera emateko, ikasleak modu aktiboan inplikatu behar du jakintza bilatzen, ikasten, esperimendatzen, hausnartzen, aplikatzen, autoebaluatzen eta komunikatzen.*

f) *Hezitzailearen eginkizuna izango da haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzea eta prozesu horiek tutorizatzea, eta horretarako prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, estimulatu, lagundu, ebaluatu eta birbideratu egin behar ditu.*


Dekretuko paragrafo horiek irakurri ondoren, hiru helburu jakin planteatu genituen:

a) Solasaldi literarioak Haur Hezkuntzako esperientzia-eremuak lantzeko (norberaren nortasuna eta komunikazioa, eta norberaren nortasuna eta ingurune fisikoa eta soziala) egokiak diren aztertzea.

b) Solasaldi literarioak zeharkako oinarrizko kompetentziak lantzeko (komunikazioa, ikasten ikasi, elkarbizitza, ekimena eta izaten ikasi) egokiak diren aztertzea.

c) Solasaldi literarioen inguruan praktikak hobetzeko hausnarketa eta ekarpenak egitea.

Hona Hemen, goiko taulan, esperientzia-eremuak eta zeharkako oinarrizko kompetentzien zerrenda:



lkerketan aztertu diren kategoriak (esperientzia eremuak eta zeharkako kompetentziak).

Saioak Donostiako ikastola batean landu dira, Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleekin. Ikasgela horretan, 21 ikasle daude (15 neska eta 6 mutil), eta Donostian bizi dira denak. Solasaldi literarioak ikastolako liburutegian egin dira, eta lau saio landu dira. Azkenik, esan behar da gure lanean ageri diren ikasleen eta ikastolaren izenak asmatuak direla, isilpeko-tasun-printzipioa errespetatzeko. Lan-saioak ikastetxeko liburutegian egin dira, ikasgelako ordutegian (9:30etik 10:30era bitartean). Lau saio horiek 2018ko abenduan (bat), 2019ko urtarrilean (bi) eta otsailean (bat) egin dira. Saio baten egitura honako hau da, gutxi gorabehera: ipuina irakurri, komentatu, solasaldi bat izan eta eskulanak egin. Solasaldi osoan, arazoren bat izan dugu (lanaren mugak), batez ere isiltasunaren gaiarekin. Ikasleekin entzute-prozesua lantzea espero genuen, baina oso zaila gertatu zaigu. Bestalde, aipatzekoa da gurasoen baimena lortzea ere oso prozesu astuna izan dela.

Materialei dagokienez, lau ipuin hauek landu dira, saio bakoitzean bat:

- Lehen ipuina: Browne, A.: *Kezkamuxelak*, Pamiela, Arre, Nafarroa, 2018.

- Bigarren ipuina: Aguilar, L.: *Tximeleta belarriak*, Pamiela, Arre, Nafarroa, 2018.

- Hirugarren ipuina: De Dios, O.: *Munstro Arrosa*, Cenlit Ediciones, Lizarra, Nafarroa, 2016.

- Laugarren ipuina: Sendak, M.: *Piztiak bizi diren lekuan*, Kalandraka, Pontevedra, 2009.

Bestalde, honako hau da saioetan erabili den galderen eredu malguta:

Oinarrizko galderak:

- Gustatu al zaizue? Zerk eman dizue atentzioa? Ipuinak beste zerbait gehiago edukitzea gustatuko al litzaizueke? Marrazkiak gustatu al zaizkizue?

-Bada gustatu ez zaizuen zerbait? Zatiren bat aspergarria izan al da? Zerbaitekin pena, amorrua sentitu al duzue?


Galdera orokorrak:

- Lehendik irakurria al zenuten ipuin hau? Gehiago gustatu al zaizue orain, ala gutxiago, ala modu berean? Beste batean berriz irakurtzea nahiko al zenukete?

- Irakurri duzue ipuin honen antza duen istoriorik? Zertan da antzekoa? Zertan da desberdina?

- Zer esango zeniekete zuen lagunei ipuin honetaz?

ESPERIENTZIAK: SOLASALDI LITERARIOAK



"Ipuinak irakurri eta tertulia egin ondoren, ipuin bakoitzari lotutako marrazkiak eta eskulanak egin genituen. Lehenengo ipuina *Kezkamuxelak* izan zen eta istorioari jarraituz, amets ez hitz egin ondoren, amets beldurgarriak uxatzeko kezkamuxela panpinak egin genituen".

- Inoiz pasatu al zaitzue ipuin honetan gertatutakoa? Liburuko gertaeraren bat gerta al daiteke bizitza errealean? Zer ezin da inoiz gertatu? Ipuin hau zuek idatziko bazenute, zer izenburu jarriko zenioke?

-Zein da ipuinaren atal garrantzitsuena zuentzat?

Esan dugun bezala, galdera horiek egokitu egin dira, ipuinaren arabera.

Ikerketaren emaitzak eta ondorioak (laburpena)

Lehen helburuari dagokionez (*Solasaldi literarioak Haur Hezkuntzako esperientzia-eremuak lantzeko egoiak diren aztertzea: Norberaren nortasuna eta komunikazioa eta Norberaren nortasuna eta ingurune fisikoa eta soziala*), eremu komunikatiboa lau ipuinetan landu da batez ere. Lau ipuinetatik hirutan, eremu komunikatiboa gehiago landu da eremu fisikoa eta soziala baino. Aldiz, lau ipuinetatik batean, bai eremu komunikatiboa, bai eremu fisikoa eta soziala orekatuta landu dira. Landutako gaiei dagokienez, beldurrari, penari, familiarari, isekari, gizarte-estereotipoei, kanpotik etorritako pertsoneri, bizitza duinari denboraren kontzeptuari, espazioari, errealitateari eta fantasiari, eta portaerei eta zigorrei buruz hitz egin da. Gai horiek ikasleen ingurune fisiko eta sozial hurbila ezagutzeko balio izan dute. Irakaslearen rolari dagokionez, solasaldian eremu

fisikoa eta soziala lantzeko trebetasunak hobetu behar genituzke. Gaur egun indarrean dagoen 237/2015 Haur Hezkuntzako Dekretuko 8. artikuluko 2. ataleko f. puntuak zera dio: *hezitzailearen eginkizuna izango da haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzea.*

Bigarren helburuari dagokionez (*Solasaldi literarioak zeharkako oinarrizko konpetentziak lantzeko egoiak diren aztertzea: komunikazioa, ikasten ikasi, elkarbizitza, ekimena eta izaten ikasi*), lau ipuinetan oso gutxi lantzen dira ikasten ikasteko konpetentzia eta ekintzaitzeta. Gaur egun indarrean dagoen Haur Hezkuntzako 237/2015 Dekretuko 20. artikuluko 3. atalean aipatzen denez, ikasleek pentsatzen eta ikasten ikasteko, komunikatzen ikasteko, besteekin bizitzen ikasteko, izaten ikasteko eta egiten nahiz ekiten ikasteko konpetentziak irakatsi behar ditu irakasleak, besteak beste. Martin eta Morenok (2007), garrantzi handia ematen diote ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziari. Egile horiek diotenez, ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia lantzeko, autorregulazio kognitiboa, afektibo-emozionala eta soziala garatu behar dira. Ikaslearen ekimena eta autonomia ere oso garrantzitsuak dira haurren garapenean. Solasaldi literarioen bitartez, konpetentzia hau nola landu daitekeen ere ikasi beharko genuke,

garrantzitsua eta konplexua baita (Puig eta Martin, 2007).

Hirugarren helburuari dagokionez (*Solasaldi literarioen inguruan praktika hobetzeko hausnarketa eta ekarpenak egitea*), bitartekaritza-lana azpimarratu nahiko genuke. Tébarren (2003) arabera, bitartekaritza-zeregin horiek horrelaxe zehaztu daitezke: irakaskuntzako eta ikaskuntzako helburuak zehaztea, ikaslearekiko interakzioa, elkarrekintza eta komunikazioa bultzatzea, ikasleen autoestimua indartzea, kooperazioa lantzea, ikasleen kultura ezagutzea, eta alderdi kognitiboa, afektibo-emozionala, soziala eta etikoa lantzea. Horrez gain, egokia iruditzen zait Chambers-en (2007) ekarpena solasaldi literarioak garatzeko. Egileak dioenez, solasaldi literarioak lantzeko, elementu hauek hartu behar dira kontuan: liburua arretaz irakurtzea, haurrei askatasunez adierazten laguntzea, testuari buruzko iritzia ez plazaratzea, elkarrizketarako gaia inoiz ez inposatzea aukeraketak eskainiz, haurrei beste pertsonen hizketaldiak ere entzuten laguntzea, taldeak esan duena laburbiltzea, ezagutza sendotzeko elkarrizketa liburura ekartzen laguntzea, eta haurrei erantzunak garatzen laguntzea. Azken finean, ikaslearen garapen osoa lortzea da hezkuntzaren xede nagusia.

Inoiz ez da goiz haurrekin liburu bat partekatzen. Irakurtzen ikasi arte

itxarotea hitz egiteko hitz egiten ikasi arte itxarotea bezala izango litzateke. Solasaldi literarioekin, ikasleen eta irakasleen arteko elkarriketa bidez hitzak eta sentimenduak partekatzearaz gain, eskola-errendimendua eta harremanak ere hobetzen dira. Ikasleak, zailtasunak kudeatu eta bere gaitasun guztiak garatzeko, konfiantza izan behar du beregan, besteengan eta inguratzen duen horretan. Konfiantza hori eraikitzen laguntzeko baldintza egokiak sortzea da hezitzaileen egitekoa (Ruiz eta Bañales, 2015). Solasaldi literarioak eta dialogikoak tresna baliagarriak izan daitezkeela pentsatzen dugu, batez ere, ikaslearen kompetentziak eta esperientzia-eremuak lantzeko eta, azken finean, haurren garapen osoa lortzeko.

Bibliografia

- AGUILÓ, L., FLORITI, LI. eta TROBAT, C.: “La biblioteca de la escuela, un espacio vivo” in *Aula de Innovación Educativa*, 222, 43-47 (2013).
- CHAMBERS, A.: *Dime: los niños, la lectura y la conversación*, Fondo de Cultura Económica, Mexico, 2007.
- GOIKOETXEA, E.; eta MARTÍNEZ, N. (2015). *Los beneficios de la lectura compartida de libros*. Educación XX1, 18 (1), 303-324.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016). 237/2015 Dekretua abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- MARTÍN, E. eta MORENO, A.: *Competencias para aprender a aprender*, Alianza Editorial, Madrid, 2007.
- PUIG, J. M. eta MARTÍN, X.: *Competencia en autonomía e iniciativa personal*, Alianza Editorial, Madrid, 2007.
- RUIZ, D. eta BAÑALES, I.: “Ibabe, eredu dialogikoa. Solasaldi literarioak eta curricularrak” in *Arbela*, 47, 24-26 (2015).
- TÉBAR, L.: *El perfil del profesor mediador*, Santillana, Madrid, 2003.



“Landu genuen bigarren ipuina *Tximeleta belarriak* izan zen, eta istorioari lotuta, ia beraien buruaz gehien gustatzen zitzaiena zer zen galdetu nien”.



“Hirugarren ipuina *Munstro arrosa* izan zen, eta istorioan azaldutako munstro arrosak eta koloretako munstroak egin genituen”.



“Laugarren ipuina *Piztiak bizi diren lekua* izan zen, eta istorioari lotuta, ia beraien logeletan zein paisaia sortuko luketen galdetu nien”.

EKARPENAK 1

'LUR ETA AMETS' ANIMAZIOZKO FILMA

Pantaila handirako jauzia prestatzen

Lur eta Amets neba-arreba bikiak eta gainerako pertsonaiak mugimenduan eta pantaila handian ikusi ahal izango dira hilabete batzuk barru. Izan ere, *Lur eta Amets* animaziozko film luzearen ekoizpen lanak azken fasera iritsita daude. Abenduan pelikula amaitzea espero dute eta otsailaren 7an estreinatuko dute Euskal Herriko zinemetan.

Bilera baten hondarrean norbaitek “erdi brometan erdi serio” botatako ordagoaren atzean, eta bestelako arrazoi sendo eta sakonak bazirela argudiatuta abiatu zuten *Lur eta Amets* proiektua Elkar argitaletxeak, Katxiporretak eta Ikastolen Elkar-teak elkarlanean. Elkar argitaletxeke Joanmari Larrartek kontatzen duenez, “gogoeta batetik abiatua zen proiektua. Izan ere, haur eta gaztetxoei Euskal Herriaren historia kontatzeko material egokirik ez zegoela ikusi eta behar horri erantzuteko egitasmoa diseinatzen hasi zen taldea”.

Orain arte, hainbat euskarri argitaratu dute haurrei eta gaztetxoei Euskal Herriko historian barrena bidaia proposatzeko: ilustrazio bizi



eta handiz hornitutako historia-dibulgazio liburua, ipuin-sorta, mahai-jolasa, webgunea, eta abestia. Orain ikus-entzunezko produktua gehituko zaio zerrendari. Izan ere, *Lur eta Amets* animaziozko film luzea amaitzeaz dira. Egileen arabera, 87 minutu inguru iraungo du filmak eta otsailaren 7an ikusi ahal izango da Euskal Herriko zinema-aretoetan eta Kataluniakoetan, filma katalanera ere bikoiztuko dutelako.

2017ko urrian ekin zioten animaziozko filma ekoizteko lanari, eta Lotura Filmsena izan da pelikula irudiz eta soinu hornitzearen ardura. Modu horretan, *Lur eta Amets* proiektuari lehengoz gain, beste eragile bat batu zitzaion: Lotura Films. Larrarteren hitzetan, “gainerako eragileek ez genekien zinema egitea zer zen. Orduan eskarmentua zuen norbaiten bila joan ginen. Marrazki bizidunen arloan, animazioa euskaraz eta Euskal Herrikeri bertatik, Lotura Films zen falta zitzaigun hanka. Ez zegoen gehiagi

pentsatu beharrik”.

Lotura Filmseko Miren Berasategirentzat “erraza” izan da elkarlana eta beraiengan utzitako ardura eta konfiantza hori asko eskertu beharrean daudela aipatzen du. Dena dela, ez da lehendabiziko aldia elkarrekin lan egiten dutela. Izan ere, Lotura Filmsekoek egin zituzten *Lur eta Amets* historia dibulgazio-liburuaren ilustrazioak, eta horrez gain proiektu gehiagotan ere elkarrekin aritu dira.

Lotura Filmsena izan da filmaren lan teknikoa egiteko ardura, baina aurrez, ikus-entzunezkoaren proiektua bideragarri egiteko finantzabideak lortzea izan da gainerako eragileen zeregina. Zentzu horretan, elkarlanean egindako lan horri esker proiektua bideragarri egin duten eragile desberdinen babesak jaso du ekoizpenak. Berasategik eta Larrartek babesle hauek izendatu dituzte: “Eusko Jaurlaritza, Euskal Telebista, Gipuzkoako Foru

Aldundia, Fagor, Irizar, Laboral Kutxa, Kutxa fundazioa, Danobat, K2K Emocionando, Otxoa Barandika fundazioa eta horiez gain, inbertitzaile pribatu baten ekarpena ere jaso dugu”.

Historian zehar bidaia

Ipuinak izan dira filmaren oinarria. Uxue Alberdik eta Unai Elorriagak idatzi zituzten ipuin bildumaren testuak eta ilustrazioak, berriz, Patxi Pelaezek egin zituen. Ipuinetan bezala, Lur eta Amets anai-arreba bikiak dira filmeko protagonistak baina orain mugimenduan ikusiko ditugu, animazioari esker. Ikus-entzunez-korako gidoia Karlos Zabalak eta Eneko Olasagastik egokitua da eta filmaren zuzendari lanetan aritu dira Joseba Ponce eta Imanol Zinkunegi. Musika, berriz, Joserra Senperena musikagileak prestatu du. Ponce eta Zinkunegik kontaktzen dutenez, gidoia jaso zutenetik bi urtean aritu dira pelikula eraikitzen buru-belarri. “Bi urte ematen du denbora asko dela, baina kontuan izan behar da artisau-lana dela egiten duguna. Marrazkiz marrazki eraiki behar izaten dugu filma”.

Marrazkiz marrazki historian zehar bidaiatzen ikusiko ditugu Lur eta Amets neba-arreba bikiak. Abenturazale amorratua, bata, eta irudimen handiko sortzaile fina, bestea; bien artean bikote ezinhobea osatuko dute. Amona Andere da beste pertsonaia esanguratsuetako bat. Ezagutza irudikatzen du eta beti dauka Lur eta Ametsi kontatzeko ipuinen bat ahotan. Pertsonaia honek eta beti bere inguruan dabilkion Baltaxar katuak bultzatuko ditu anai-arreba bikiak historian barrena bidaiatzera.

Filmaren egileek aipatzen dutenez, fikzioa izan da pelikularen oinarria. “Ez da historia bere horretan kontatzen. Euskal Herriko historia hitza oso potoloa da, eta haur eta gaztetxoengana iristeko produktu bat egitea izan da gure asmoa. Horregatik, fikzioa egin dugu eta irudimenarekin jolastu dugu. Lur eta Ametsen abenturak dira filmaren muina, baina abentura horiek gure historiaren garai desberdinetara egokituta agertuko zaizkigu, hasi



historiaurretik eta gaur egunera arte”, dio Berasategik. Pertsonaiak ere garai horietara egokituta agertuko zaizkigula nabarmentzen du: “Janzker desberdinak erabiliko dituzte pertsonaiek garaiaren arabera, baita lanabesak, ohiturak...”

Genero estereotipoak eta keinua

Pasarte historikoen testuinguruak lantzerako orduan, historia politikoaz harago, herritarrek eguneroko bizimoduan eraikitzen duten historia hori ere aintzat hartu dutela aipatzen dute filmaren egileek. Izan ere, ohiko historia euskarrietan bigarren mailan agertu izan diren emakumeak argitara ateratzeko borondatea izan du egitasmoak hasieratik, eta filmean ere horren inguruko keinuak badirela aipatzen dute: “Ez dugu egin historia pelikula bat. Beraz, historia ez da kontatzen bere horretan, ez letra larriz idatzitakoa eta ezta letra txikiz idatzitakoa ere. Baina genero estereotipoak apurtzeko intentzioa egon da”, aipatzen du Larrartek. Pertsonaietan bertan, esaterako, badago halako ahalegin bat estereotipo horiek apurtzeko: “Lur da ausarta, eta historiaurreko garaian bera joango da ehizatzen. Amets, aldiz, kobazuloan geratuko da marrazten, kanpora ateratzeko beldurra daukalako”, dio Berasategik. Historiako zenbait pasarte ere emakumei ahotsa emanda irudikatu dituztela aurreratu dute. “Bilboko

hiriburuan, adibidez, industrializazio garaia fabrika bateko emakume langileen altxamendu baten bidez erakusten da.”.

Publikoari dagokionez, 8 eta 12 urte bitarte horretan kokatzen dute ikuslearen perfla, baina animazioan adina jartzea zaila izaten dela aipatzen du Lotura Films-eko kideak. “Familian ikusteko produktu bat da filma bere horretan. Horregatik, nahiz eta 8-12 urte bitarte horretara bideratuta egon, txikiagoak ere familia giroan gerturatuko direla uste dugu. Txikiak agian ez dira historian oso ondo kokatuko baina frogak egin ditugu eta pelikularen haria jarraitzen dute”.

Durangora begira

Durangon abenduan egin ohi den Euskal Diska eta Liburu azokan filmaren aurrerapena ikusteko aukera izango da. Izan ere, Lur eta Amets egitasmoaren standa jarriko dutela aurreratu dute Larrartek eta Berasategik. “Stanean pelikularen trailerra erakutsiko dugu eta horrez gain, *Irudienea* gunean 15 minutuko aurrerapen bat eskainiko dugu, pelikularen aurkezpen batekin batera”.

Otsailaren 7an egingo dute pantaila handirako jauzia: egun horretan Euskal Herriko zinema areto guztietan ikusi ahal izango da *Lur eta Amets* animaziozko film berria. Abenturaz betetako bidaiari ekiteko prest.

EKARPENAK 2

IKASTURTE BERRIRAKO ERRONKAK

Motxila bete ilusio

Oporraldia pasata motxila bete ilusio bueltatu gara eskoletara. Motxila horretan daude gure herriak merezi duen hezkuntza eraikitzeko gogoia eta hezkuntzako langileen lan-baldintzak hobetzeko asmoak, lan-baldintza onak, kalitatezko hezkuntzarekin lotura zuzena baitu. Hezkuntzako langileok, jabetzen garelako gure lana, jendarte berri bat eraikitzeko oso garrantzitsua dela. Hezkuntzako langileok plantilen egonkortasuna, ratioen murrizketak, ordezkapenak lehen egunetik egitea, formakuntza edo baliabide pedagogikoak eskatzen ditugunean, hezkuntza hobetzeaz ari gara.



IBAI REDONDO

LABeko Hezkuntza Politikako arduraduna

U daran zehar Euskal Herri eta mundu hobeia eraikitzeko desio zein aldarrikapenak entzun ditugu, eraldaketa morea, berdea eta gorriaren koloreak ikusi ditugu Miarrizteko kontragailurrean, Tafallako auzolanean, Aste Nagusi Piratan, Amazonian edo Bilboko kaleetan. LABek haur eta gazteen ongizatea abiapuntu hartuta, hezkuntza sistema mugitzen ari den herri horren zerbitzura jarri nahi du, hezkuntzarik gabe ez

dagoelako aldaketarik. Baina ez dugu inor engainatuko, arazo larriak ditugu hezkuntzan.

Asko egin dugu eta asko egiten ari gara, baina azken urteotan ez goaz ondo. Sistemaren kanpo- eta barne-ebaluazioek, ofizialek eta hezkuntzako langileok egiten ditugunek erradiografia kezagarria erakusten dute: euskararen kalitate eta erabileran aurrera egin beharrean atzera egiten ari gara; euskal kulturaren transmisioa ezinezkoa da curriculum español eta frantsesaren menpekotasunetik askatu ezean; klase sozial eta jatorriaren arabera segregazioa larriagotzen ari da; langileen ezegonkortasunak hezkuntza kalitatea asko kaskartzen du; sistema publikoa privatizatzen eta zokoratzen ari dira... Eta aurrerantz ematen ditugun pauso esanguratsuak ezerezean uzteko Espainiako tribunaletan eta Frantziako prefektura zorrotz ari dira lanean: sexuaren arabera sailkapena egiten duten ikastetxeak diruz laguntzea bermatuz; murgiltze ereduak jo puntuan jarritz; curriculumean euskal kulturaren transmisioa debekatuz; Frantziako bandera eta ereserkia ikasgela guztietan jartzea inposatuz...

Arazoak erronka

Arazoen zerrenda luzea da. Ikasturte honetan, arazoak erronka eta mehatxuak aukera bilakatzen saiatuko da LAB sindikatua. Aipatu bezala hainbat esparrutan ditugu arazo larriak, horrenbeste dira, arazoa sistema bera dela ondorioztatzen dugula. Gure

proposamenarekin, Euskal Herriko hezkuntza komunitatearen erreferentziak Espainia eta Frantzia izan beharrean beste leku batzuetan jarri nahi ditugu: Europan eta munduan eredarri diren hezkuntza sistemetan; gure hizkuntzaren erabileran eta kulturaren transmisioan; hezkuntzaren bitartez zapal dutako klase sozialen aukera berdintasuna lortzean; pedagogia feministaren bidezko hezkuntza hezkidetzalean... Esaten ari garena ez da ameskeria, hau dagoeneko, Euskal Herriko hainbat ikastetxetan egiten ari dira, gure erronka da, gaur arraroa dena, bihar ohikoa bilakatzea, gaur alternatiboa dena bihar sistematikoa bilakatzea.

- **Euskal Eskola.** Euskal Herriko Hezkuntza Sistema, euskal herritarrok erabakitakoa, burujabea. Euskara eta euskal kultura ardatz izango duena. Horretarako, euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko duen murgiltze eredia beharrezkoa da, ikasle euskaldun-egonak hezteko. Era berean, eskolak euskal kultura transmitituko badu, euskal curriculumean, euskal kulturaren ardatzua izan behar da, euskal jakintzatik abiatuz, jakintza unibertsalera bidea egiteko. Gauzak horrela, LABek ikastetxe guztietan, nazio mailan zein administrazio autonomikoetan norabide honetan bultzatuko da egiteko deia egiten du. Bereziki EAEn ate joko dugun hezkuntza legea burujabea izan dadin eta *euskal* izaera izan dezan borroka areagotuko dugu; Iruñeako haurreskoletan euskarazko plazak murrizteko mehatxuari aurre egingo diogu; Nafarroko eremu "mixto" eta "erdaldunean" euskarazko lerroak irekitzeko borrokan jarraituko dugu; Ipar Euskal Herrian Ikastolak sustatu eta eremu publikoan murgiltze eredia hedatzeko lan egingo dugu;...
- **Publikoa.** Hezkuntzarako eskubide unibertsala bermatzeko modu bakarra publikotasuna da. Hezkuntza eskubide guztiak guztiontzat, aukera berdinta-

sunak, inklusioa edo kalitatezko hezkuntza bezalako oinarriko eskubideak bermatzeko, euskal eskola publikoa ardatz eta lehentasun duen hezkuntza sistema da gure aukera...Eta oso urrutiko gaude horretatik. Sistema kapitalistaren kudeatzaile zintzo diren estatuak eta administrazio autonomikoak, hezkuntza sistema publikoa txikitzen ari dira: inbertsio eta formazio falta, langileen egonkortasunik eza, hainbat zerbitzuren pribatizazioa, erlijio katolikoa mantentzea... LABetik argi diogu, espaniar/frantziar publikotasun parametroak ez ditugu onartzen, gure euskal publikotasuna borrokatzen jarraituko dugu, gure herriaren errealitate gure herria eta hezkuntza komunitatearen beharrak aseko dituen hezkuntza eraikiz. Zentzu honetan, klase eta jatorriaren araberrako segregazioari aurre egingo diogu, Gasteizen eta Euskal Herri osoan, injustua eta lotsagarria da gertatzen ari dena. Kasu, egoera konponbidean jarri ezean, arazoa larriagotu eta betikotu egingo da. Sistema duala indartzen ari da, "publikoa pobrezko eta pribatua besteentzako" estrategia antolatua du sistemak.

- **Komunitarioa.** Behetik gora eraikia, herriarekin eta herriarentzat. Hezkuntza komunitatea eta auzo edo herriaren inpli-

Hainbat esparrutan ditugu arazo larriak, horrenbeste dira, arazoa sistema bera dela ondorioztatzen dugula. Horregatik nahi dugu beste erreferentzia batzuetan oinarritutako euskal eskola publikoa eta komunitarioa

kazioan oinarritutako eredia eraikitzeko apustua egiten dugu Herri Hezitzailearen filosofia errealitate bilakatuz. Eskolaz eskola Euskal Herri osoan eskola euskaldunak, feministak, inklusiboak, laikoak, parte hartzaileak, berritzaileak, burujabeak...Eraikiz.

LABek ikasturte honetan gurea eraikitzeko auzolan erraldoia antolatzen jarraituko du horretarako prest dagoen ororekin. Ez da lan makala esku artean duguna, baina oztopoak oztopo ari gara eta egingo dugu!



EKARPENAK 3

JOLAS ESPAZIOAK 1-2 URTEKO ADIN-TARTEKO UMEEN GELETAN

1-2 urteko umeentzako jolas espazioaren gaineko hausnarketa, Pikler pedagogiaren orbitan

Gerturatze piklertarrean murgiltzen diren hezitzaileek asko disfrutatzen dute normalean 0-1 urtekoekin. Uste dut oso egitura garbia eta zentzuzkoa dutela; baina haur-eskola batean baino gehiagotan sentitu izan dut gero, hezitzaile horiek berak 1-2 urteko adin-tartea duten umeen espaziora doazenean, halako krisialdi bat sortzen dela. Horregatik, koherentzia bat bilatu nahian, hainbat hausnarketa egin ditut 1-2 urteko umeen gelarako, eta horiexek azalduko ditut ondorengo lerro hauetan. Funtzio sinbolikoaren gaineko hausnarketarekin abiatuko naiz; jolas sinbolikoaren inguruan arituko naiz ondoren, eta amaierarako utzi dut bigoeta horietatik sortutako ondorioa: jarduera-fokuen diseinua.



JUANJO QUINTELA

Psikologoa eta Emmi Pikler pedagogian aditua

Funtzio sinbolikoa ulertze-ko, uste dut garrantzitsua dela semiotikaren inguruko oinarritzko zenbait kontzeptu azaltzea. Modu horretan, adierazlearen eta adieraziaren arteko bereizketa egitetik abiatuko naiz. Izan ere, adinean aurrera egin ahala, erabiltzen ditugun sinboloen adierazia eta adierazlea bereiz ulertzen ditugu. Baina, Orik 18 hilabetera bitarteko haurrentzat, adierazlea adieraziaren zati da.

Esate baterako, 18 hilabete baino gutxiagoko haur batentzat, giltzen zarata entzutea kalera joatearen seinale da. Kasu horretan, adierazlea adieraziaren parte da: bata bestearekin lotuta ulertzen ditu haurrak. Sinboloetan, gainera, adierazleak eta adieraziak nolabaiteko antza izaten dute pertzepzioaren ikuspegitik. Mahai baten marrazkia izan daiteke horren adibidea, edota keinu sinbolikoa bera; hatzarekin apuntatu eta *pium!* zarata egiten badut, guztiok ulertuko dugu pistola bat dela. Batak bestearen antza du, eta, beraz, sinboloak ez dira ez arbitrarioak ez konbentzionalak. Zeinuak, aldiz, arbitrarioak eta konbentzionalak dira; hitzarmen baten bidez adosten dira, kultura-esparruan, edota historian zehar adostutako zerbait dira. Adibidez, aulkiari desberdin esaten zaio hizkuntza batean edo bestean, edota badira hainbat sinbolo edo ikur, arriskuak eta abar irudikatzen dituztenak.

Dena den, zeinu eta sinboloak gure adimenaren adreiluak dira. Zeinu eta sinboloek munduan barneratzeko ahalmena ematen digute; errealitatearekin harremanetan jartzea ahalbidetzen digute gure buru barnean, kanpoko mundu horretan zuzenean kokatu behar izatetik abiatuta. Horixe da gizakiaren adimenaren esentzia, gure munduarekiko egokitzapena ahalbidetzeko barne-mundua era aberats eta sortzailean manipulatzeko

gaitasuna. Adimenaren adreilu horien lehen hastapenak 18 hilabeteko adin inguru horretan gertatzen dira, funtzio sinboliko, funtzio simetrikiko edo errepresentazio-funtzio berri horri esker. Eta funtzio berri horrek gaitasun berriak ahalbidetzen ditu, hala nola aurrean ez dagoen eredu bat imitatzea, marrazketa, eta jolas sinbolikoa edo ‘banintz’ bezalako jolasak.

Jolas sinbolikoak edo ‘banaiz’ bezalako jolasak sinboloen erabilera dakar berarekin. Banana bat eskuetan hartu, eta telefonoa balitz bezala aritzea, kartoizko kutxa bat hartu eta kamioi bat balitz bezala erabiltzea... Ez dago erabateko adostasunik jolas sinbolikoa mugatu eta definitzeko orduan. Hala ere, Gardei eta Josetxo Linazari erreferentzia eginez, badira oso zabalduta eta adostuta dauden zenbait ezaugarri. Eskuetan daukaguna ulertzeko, funtsezkoak iruditzen zaizkidan bi ezaugarri azpimarratuko ditut.

Lehenengo eta behin, azpimarratu nahi nuke jolas sinbolikoa barneko faktoreek baldintzatzen dutela, eta inola ere ez kanpokoek. Garbi ikusten da hori orrialde honetako argazkian: hiru haur medikutara jolasten ari dira, ia inongo jostailurik gabe; ez dago ez loturirik, ez xiringaririk, ez termometroririk, ez maskaratoririk, ez horrelako beste ezer. Ez dago jolasa bultzatu edo baldintzatuko duen kanpoko inolako eragilerik; jolasa haurrengandik sortzen da, eta ezerk ez du jolasa mugatzen edota oztopatzen. Kasu honetan, gauzak konpontzeko tresna gisa identifikatu dezakegun hori nahikoa zaie jolasteko. Objektu hori, haurraren jardura mental autonomo eta sortzaileari esker, medikua tresneriaren adierazle da.

Bigarrenik, jolas sinbolikoan, adieraziaren eta adierazlearen arteko lotura ez da mugiezina. Haurrak objektu bera adierazi askotarako erabil dezake. Esate baterako, egur zati bat izan daiteke galleta bat, sakelako telefonoa, auto bat, edota dirua. Objektu berbera erabiltzeko modu aberats eta sortzaile hori dago pentsamendu aberats eta sortzailearen oinarrian. Izan ere, objektu bat adierazle gisa aukeratzeak prozesu kognitiboak adierazten ditu; haurrak



kontuan hartu behar ditu bi objektuen ezaugarriak, objektu bat besteari adierazle moduan aukeratu behar du, eta, azkenik, adierazle bat eraikiko du. Ildo horretan kokatzen da gure lana, hau da, haurraren pentsamendu autonomoa eta sortzaileari arreta jartzean, eta horrek izan beharko luke gure iparra.

Baina zer gertatzen da adierazlea adieraziaren kopia minimizatua denean? Myrtha Choklerrek, 'Cómo se juega el niño cuando juega' artikuluan, haurraren jolasaren inguruko gogoeta hau egiten du: “Haurrak objektuaren metamorfosi moduko bat egiten du. Errealitateko objektu baten zenbait ezaugarri ezagutzen ditu, eta ezaugarri horiek beste objektu batzuei ezartzen dizkie. Hala, makila luzexka bat koilara izan liteke; kartoizko kaxa bat, kamioi; erratza, zaldi; palankana bat, batzuetan lapiko, beste batzuetan itsasontzi...”. Eta hauxe dio gainera, adin bakoitzerako jolas edo jostailuen egokitasunaz: “Haurrek jolas asko egin ditzakete, baita jostailurik gabe ere; baina jolaserako espazioak behar dituzte, txikiak direnean batez ere. Jolasaren barnean, jostailuek sostengu-funtzioa betetzen dute, bereziki moldagarritasuna edo askotariko esanahiak eskaintzen dituztenek. Errealitatea zehaztasun handiegiz irudikatzen dutenak, berriz, ez dira egokiak”. Beste era batera esanda, objektuak adierazlearen eta adieraziaren arteko harreman askotariko eta aldagarria

sortzen laguntzen ez duenean, jolas sinbolikoa erabat pobretzen da; hiltzen ez bada, azkenetan egongo da. Zentzu horretan, jolas sinbolikorako lekurik geratzen ote zaio haurrari, errealitatearekin antza duten jostailuak eskaintzen badizkiogu? Bada, ez. Objektuak zenbat eta gutxiago adierazi, haurrak gehiago jarriko du bere aldetik. Piklerren ikuspegiarekin bat etorriz, gauza bera gertatzen da mugimenduari dagokionez ere: helduak zenbat eta gutxiago ipini, gehiago jarriko du haurrak bere aldetik. Horregatik esaten dugu honako hau mugimendu librea defendatzen dugunok: erretiratu zaitez, eraiki harreman sakon bat zainketetan, eta umeak disfruta dezala zu ondoan edukita, baina bere ekimena baldintzatu gabe.

1-2 urteko haurren gelak antolatzeko proposamen zehatzak

Beraz, aurretik aipatutakoa kontuan izanda, zer objektu eta material aukeratzea izango da egokiena? Nola antola dezakegu 1-2 urteko adin-tarteko haurrentzako gela? Hemen aurkeztuko dudana galdera horri erantzuteko proposamena da. Txokoen ideiarekin lot daiteke hemen proposatzen dena, baina nik nahiago izan dut jardura-foku gisa aurkeztu, txokoen terminoa erreta dagoela iruditzen zaidalako.

Orduan, nola lor daiteke 1-2 urteko umeen gelan jardura edo jolas autonomorako koherentzia? Hasteko,

Jolasa edo librea da edo ez da jolasa. Horrez gain, 1-2 urteko adin tarterako gela diseinatzerako orduan honako bi ezaugarri hartu behar ditugu kontuan: batetik, motrizitate globala, umeak jada katuka dabilta, zutitzen dira, munduarekin harremana izateko modua guztiz aldatzen da. Eta bestetik, izugarritzko garrantzia dauka adin tarte honetan haize zabaleko bizitzak.

garbi izan behar dugu hau: jolasa, edo librea da, edo ez da jolasa. Eta zein dira ezaugarri berriak 1-2 urteko adin-tarteko umeengan? Nik, oraingoz, bi azpimarratuko ditut: bata motrizitate globala da; umeak jada katuka dabilta, zutitu egiten dira, munduarekin harremana izateko guztiz modu desberdina daukate. Eta bestea aire zabaleko bizitza da. 0-1 urteko adin-tartean, ez nau horrenbeste kezkatzen aire zabalaren falta horrek. Baina, 1-2 urteko adin-tartean, ezinbestekoa horri buruz hausnartzea. Izugarritzko garrantzia dauka adin-tarte horretan aire zabaleko bizitzak.

0-1 urtetik 1-2ra eta 2tik aurrera koherentziaz aritzea ahalbidetzen duen beste ezaugarri bat da ez-direktibotasuna hartzea pedagogiarenean ardatz edo bizkarrezurtzat. Ez-direktibotasunaren beste muturrean, helduarengandik sortzen diren proposamen kolektiboak daude. Eta

beharrezkoa iruditzen zait horren gaineko azterketa egitea, zeren uste dut proposamen kolektiboetan eta zuzenduetan oinarritutako metodologiaren eta jarduera-fokuetan oinarritutako metodologiaren artean bateragarritasun eskasa dagoela. Edonor mugitu daiteke ez-direktibotasunean, eta egoera batzuk zuzenduak izan daitezke, baina ahaztu gabe bere bizkarrezur metodologikoa ez-direktibotasuna dela. Horri lotuta, 0-3 urteko adin-tartean lan-metodologia gisa proposamen kolektiboak eta zuzenduak ez erabiltzeko hainbat arrazoiaren artean, hiru azpimarratuko ditut:

1. Esfinterren jabetzari dagokionez, haur guztien maskuriek ez dute berdina funtzionatzen. Loari dagokionez ere, haur guztien nekea ez da une berean gertatzen. Eta jatorduekin ere, antzeko zerbait gertatzen da. Modu berean, jolasari dagokionez ere, haur guztiei ez zaie jarduera bera interesatzen, ez eta denbora-tarte berean ere.
2. Adin horretan, haurren autonomia lortzeko prozesuan, atxikimendutik abiatuta, banakotasuna eta identitatearen eraikuntza daude jokoan, bereizketa- edo banaketa-prozesuaren parean. Zentzu horretan, helduak bereziki proposamen kolektiboak eta zuzenduak egiten dituenean, mugatu egiten da bereizketaren, banakotasunaren eta nortasunaren garapena. Haur guztiek une berean helduak proposatutako gauza bera egin behar badute, ez dago lekurik beren identitate-rako.
3. Direktibotasunean oinarritutako metodologiaren efikazia eza eta pobrezia. Oso garrantzitsua iruditzen zait azken hori, normalean justu alderantziz saltzen baita. Francesco Tonucci honako gogoeta hau egiten du: "Idazketarako prestatzeko jarduera moduan erabiltzen da marrazketa, eta inprimatutako objektuak koloreztatzerako behartzen da haurra. Horrela, ez du forma desberdinak asmatzen ibili beharrik izango gero, eta

mugetatik atera gabe ibiltzera ohituko da. Modu horretan, ez da arrastotik aterako bihar-ko egunean". Bi irakurketa egiten ditu: bata, begiaren eta eskuaren arteko harremanari dagokiona, eta, bestea, hiritar gisa etorkizunean izango denari buruzkoa.

Zein jarduera-foku proposatuko ditugu 1-2 urteko adin-tarteko umeen espazioan?

Hasteko eta irizpide orokor gisa, kontuan izan behar dugu jarduera-fokuen erabilera zirkulazio librearen printzipioan oinarrituko dela. Haurrak nahi duen gunera libreki joateko aukera dauka, eta, era berean, bertan nahi duen denboran egotekoa ere bai. Gainera, argi izan behar dugu ez ditugula izango erantzun jakinak galdera guztietarako. Horregatik, beharrezkoa izango da guztiak inplikatzeko lortzeko duen bilaketa bat egiten asmatzea, eta ez dugu ahaztu behar bati balio dionak ez diola beste bati nahitaez balio behar.

Hona hemen jarduera-fokuen diseinurako proposamena:

1) Motrizitate globalaren jarduer-fokua: 1-2 urteko adin-tarteko umeen espaziora pasatzean, aldatu behar ditugu 0-1 tartean genituen motrizitate-egiturak. Beharbada zerbait eutsi behar zaio, malguak izan behar dugu horretan; baina behatu ondoren ohartuko gara egokitze beharra dugula. 1-2 urterako, egokiak dira egurrezko egiturak, batez ere igo eta jaisteko aukera ematen dutenak. Eskailerak oso material interesgarriak dira adin-tarte horretan, mugimendua aktibatzen dutelako eta gorputz kontzientzia areagotzen laguntzen dutelako.

2) Hondar-txokoa: haurrek asko miresten duten jarduer-fokua da hondar-txokoa. Barruko espazioan dagoen txokoaz ari gara, eta, gune hori prestatzeko, asko pentsatu behar da, eta erabakiak hartu behar ditugu. Askotariko erabakiak har ditzakegu; talde batek arau batzuk adostuko ditu, eta beste batek, beste batzuk. Printzipioz, guztiak dira baliagarriak. Baina komeni da ezaugarri hauen inguruan erabakiak hartzea: hondarra

atera daiteke hondar-txokotik kanpora, ala ez? Haurren kopurua mugatu egingo da?, harea umela ala lehorra?, hondar-txokoa itxitura batek mugatuko du?, txoko honetara beste guneetako materiala sar daiteke? Galdera horien erantzunak adostu behar ditugu espazio hau diseinatzeko garaian. Gainera, interesgarria izan daiteke hondar-txokoan giza irudiak, tresnak, ibilgailuak edota animaliak sartzea.

3) Trasteekin jolasteko gunea edo jolas heuristikoaren jarduera-fokua: gunee honen gakoa betetzea eta hustea da, mota askotako materialak ontzi batetik bestera aldatzea, sakabnatzea, elkartzea... Fisikako ariketak dirudite azalean, baina, psikoanali-siaren terminoetara ekartzen badugu, nortasunaren eraikuntzaren dinamika dago azpian. Beraz, adin-tarte honetan, jarduera-foku hau sukaldearen ideiarekin interpretatzea helduaren aurreiritzia izango da, adin honetako haurrak ez daudelako oraindik jolas sinbolikoaren etapan; geroago etorriko da hori.

4) Buztinaren jarduera-fokua: interesgarria iruditzen zait Alfredo Hoyuelosek jarduera honetarako egindako proposamena. Irazgaiztutako mahai bat Egitura zapala folioaren ordezkotako gisa erabil dezakegu. Eredu honetan, amantalak egokituko ditugu, eta ur-sistema bat buztina ez gogortzeko. Haurrek buztinaren bidez gorputzarekin harreman zuzena izan dezaten ahalbidetuko dugu, eta oso gauza politak egitera iritsiko dira.

5) Agertzeko eta desagertzeko tokia: elkartzearen eta banatzearen prozesuei egiten die erreferentzia gunee honek. Ezkutatzea, desagertzea, itxura aldatzea, iluntasunaren bizi-pena... haurren behar sakonekin lotuta daude, eta bizipen horiei gunee bat eman beharko genieke. Egokiak lirateke ezkutatzeko leku bat, ikusten uzten duen gortina bat, kanpoa eta barrua bereizten dituen egitura bat, eta baita itxura aldatzeko baliabideen lekua ere. Baliabide horretan, oiha-lak, gonak, betaurrekoak, zapatak eta antzeko materiala jar dezakegu, baina kopuru mugatuan, gehiegi izan gabe. Interesgarria da, era berean, material horren ondoan ispilu bat jartzea, nor bere gorputza ikusteko

moduko tamaina duena. Ezkutatzeko guneak iluntasunarekin jolasteko aukera ematen badu, gerora, argiarekin jolasteko gune batera jo daiteke, baina hori ezingo dugu aurrez jakin. Hala gertatuko balitz, argiaren gune iraunkor bat sortu daiteke, baina, hasieran, nahikoa da erraz erabiltzen diren linternatxo batzuk jartzea.

6) Panpinekin jolasteko jarduera-fokua: panpina pare bat, bi sehaska, mantatxoak... eta nahikoa izango da. Zerbait behar badute, jolas heuristikoaren gunetik ekarriko dute.

7) Atsedenerako gunea: egunean zehar, badira zenbait une, non haurrek beren jardueran etenaldi bat egiteko beharra sentitzen duten. Atsedenerako gunea geldialdi horietarako dago pentsatuta, eta eroso, bereziki lasaia eta bertan egoteko gonbita egiten duena izan behar du. Geldialdi hauek aldi batekoak dira, eta, denbora pasatzean, haurra beste jarduera-foku batzuetara itzuliko da. Atsedenerako gunean ere jarduera dago, baina egotea du ezaugarri nagusi. Gune horretan, honako elementu hauek jar ditzakegu: landare bat eta arrainontzi bat, sofa edo antzeko elementuren bat, atsedenerako gunea estaltzen duen oihalen bat biltze hori indartzeko... Familiako argazkiak ere interesgarriak izan daitezke gune horretarako, edota ohetxoren bat kuxinekin, ipuin batzuk, peluxeak, mantatxoak...

1-2 urteko adin-tartean, oraingoan, egosten edo marinatzen ikusten ditut jarduera-foku hauek:

8) Eraikuntzen jarduera-fokua: 2 eta 3 urteko adin-tarte honetako espazioan eraikuntzako materiala eduki behar dela, baina ez dugu espero behar inolako eragiketa sofistikatorik. Ildo beretik, biraka higitzen diren objektuak ere interesgarriak izan daitezke adin honetarako, edota tutu gardenekin egindako egiturak, pilotekin ekintza aktiboak garatzeko.

9) Marrazketarako jarduera-fokua: 2 eta 3 urteko umeen espaziorako egokiagoa ikusten dut marrazketarako gunea, baina 1-2 urtekoen gunean has gaitezke gela marrazketa-elementuekin hornitzen. Hala eta guztiz, eremu hau eskainiz gero,

Proposamen hau barruko espazioa duintzeko asmoarekin sortu da. Ez da, inondik inora, haize zabaleko bizitza ordezkatzeko. Onartezina iruditzen zait zer-nolako haize zabaleko espazioak eskaintzen diren zenbait tokitan.

bertikalean izan beharko lukeela iruditzen zait. Izan ere, adin hauetan haurra zirrimarren fasean dagoenez, interesatzen zaiguna zinetesia da, hau da, gorputzaren mugimenduaren askatasuna. Haurren marrazketaren eboluzioa garapen motorrarekin lotuta dago, eta, zentzu horretan, arlo sensoriala da bilatu behar duguna, zinetesia.

Gune batean zein bestean, material batekin zein bestearekin, probatu egin behar da. Gure lanbidean, proba asko egin behar dira, eta zintzoak izan behar dugu gure buruarekin. Zerbaitek funtzionatzen ez badu, kendu egingo dugu. Dinamika hau guztia aurrera eramateko, ez ditugu behar inbertsio handiak, baizik eta pedagogia merke bat.

Bukatzeo, bi hausnarketa egin nahi ditut. Batetik, umeekin gauzak ondo egin nahi baditugu, haiei eskaini baino lehen ibilbide bat egin behar dugu; askoz hobe taldean bada, baina, bestela, bakarka. Dena den, ezin ditugu gauzak itsu-itsuan egin, batere pentsatu gabe. Beharrezkoa da aurrez ondo pentsatzea. Eta, bestetik, argi utzi nahi dut proposamen hau barruko espazioa duintzeko asmoarekin sortu dela. Ez da, inondik inora, aire zabaleko bizitza ordezkatzeko. Onartezina iruditzen zait zer-nolako aire zabaleko espazioak eskaintzen diren zenbait tokitan. Zentzu horretan, borroka egin beharra dago, ez delako ezer lortzen borrokatu gabe.

GALDEIDAZU

ZER DA WIKIMEDIATIK HEZKUNTZA ESPARRUAN EGITEN ARI ZARETENA?

“majina ezazu mundu bat non gizaki guztiek askatasunez zabal dezaketen ezagutza guztia”.

Horrela hasi zen eztabaida hau.

Wikipedia entziklopedia, Wikimedia Fundazioak babesten duen proiekturik ezagunena, adinez nagusia da jada: 18 urte hauetan, 300 hizkuntzatan baino gehiagotan sortu da entziklopedia librea, milaka pertsonak parte hartu dute ezagutza librea guztien eskura jartzen, eta inoizko lankidetzaproiekturik handiena gauzatu da. Auzolanean eta libre. Proiektua hazi egin da, koskortu, eta jada ez da bakarrik entziklopedia bat, ezagutza librearen azpiegitura oso bat da; multimedia ekimen bat da, 50 milioi irudi, bideo eta argazki libre baino gehiagorekin; jatorrizko testuen biltegi libre bat da, milaka eta milaka orrialde transkribaturekin; datuen biltegi erraldoi bat da, historian egindako datu-base libererik handiena; software bat ere bada, beste webgune asko elikatzeke balio duena.

Testuinguru horretan jaio zen, orain hiru urte, Wikimedia 2030 estrategia, gure burua berrasmatzeko eta zer nahi dugun erabakitzeko eztabaida erraldoia. Luzea izaten ari da, eta luzerako doala ematen du; izan ere, mundu-mailako makineria oso bat mugitu behar da, eta oso irizpide desberdinak, kultura guztiz antagonikoak eta askotariko oinarriak dituen



GALDER GONZALEZ

Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko proiektu arduraduna



mugimendu bat da gurea.

Wikimedia Estrategiaren helburua 2030ean non egon nahi dugun zehaztea da. Horretarako, hainbat nazioarteko lantalde egin dira (aniztasuna, diru-sarrerak, egiturak, komunitatearen osasuna...), eta urtebetez dokumentuak sortzen aritu gara, aurreko bi urteetan jasotako ekarpen guztiak aintzat hartuz. Oinarrian, ikuspegi estrategiko bat da. Honela dio orain arte adostutako oinarrizko testuak:

Gure helburu estrategikoa:

zerbitzua eta ekitatea. 2030erako, ezagutza librearen ekosistemaren funtsezko azpiegitura bihurtuko da Wikimedia, eta gure ikuspegia partekatzen duen edonork gurekin bat egin ahal izango du.

Guk, Wikimediako kolaboratzaileok, komunitateok eta erakundeok, aurrera egingo dugu gure munduan giza aniztasuna erabat adierazten duten ezagutzak bildutzeko eta beste batzuei gauza bera egiteko aukera emango dieten zerbitzuak eta egiturak eraikitzeko.

Ezagutza zerbitzu gisa: gure erabiltzaileak zerbitzatzeko, interfaze eta komunitateen bidez munduari irekitako ezagutza zerbitzatzeko duen plataforma bihurtuko gara. Aliatuek eta bazkideek Wikimediatik harago ezagutza librea antolatu eta trukatzeko tresnak eraikiko ditugu. Gure azpiegiturak

aukera emango digu, guri eta beste batzuei, doako eta konfiantzazko ezagutza modu ugari bildu eta erabiltzeko.

Ezagutzaren ekitatea: mugimendu sozial gisa, ezagutzan eta botere- eta pribilegio-egituretatik kanpo geratu diren komunitateetan oinarrituko ditugu gure ahaleginak. Jatorri guztietako pertsoneri ongietorria egingo diegu, komunitate indartsu eta askotarikoak eraikitzeko. Ezagutza askerako sarbidea eta ekarpena eragozten duten oztopo sozial, politiko eta teknikoak hautsiko ditugu.

Nire ustez, azken puntu horretan dago gako nagusia, ezagutzaren ekitatean, hain zuten.

Ezagutzaren ekitatea

Ezagutza ez da neutroa. Curriculumak egiten edo aztertzen dituen edonork daki erabaki politikoak daudela atzetik. Curriculumak erabil daitezke ekitatea bultzatzeko edo egiturazko desberdintasunei eusteko. Wikipediak (gure proiektu nagusia hori baita) askotan edan du orain arte egondako iturrietatik, eta orain arte egondako iturriek ez dute ezagutza modu ekitatiboan banatu. Gizonezkoen eta emakumezkoen errepresentazioa ez da berdina, adibidez: biografien % 17 inguru baino ez dira emakumezkoenak, eta historiako pasarte gehienetan gizonen izenak baizik ez dira ageri. Genero-oreka lortzea erronka bat da, agian ezinezkoa, baina bidea egiten laguntzen diguna.

Produktuak eta programak informatikariek diseinatu dituzte. Zehazkiago, herrialde aberatsetako informatikariek, beti ordenagailu bat ondoan izan dutenak. Gaur egun, Interneten kontsumorik handiena mugikorren bidez egiten da, eta milioika dira inoiz ordenagailu bat izan ez dutenak baina Internet konexioari mugikorren bakarrik lotu direnak. Funtsezkoa da ezagutza pertsona horiei helaraztea. Orain arte produktuan zentratu gara, hemendik aurrera pertsonetan oinarritutako proiektu bat garatzeko ideia da gailentzen ari dena.

7.000 hizkuntza inguru daude munduan. Horietako askok oso hitzun gutxi dituzte, eta litekeena da mendea

amaitzen denean gehienak desagertzea. Kalkulu batzuek diote mende honetan hizkuntzen % 90 desagertuko dela. Zein salbatuko dira? “Erabiltzaile-oinarria dutenak” izango litzateke orain dela 30 urteko erantzuna, baina errealitatea bestelakoa da. Sarean presentzia digitala duten hizkuntzak baino ez dira salbatuko, eta agian guztiak ere ez. Wikipedian egotea funtsezkoa da hizkuntza baterako (ikerketek hala diote), eta, horregatik, Wikimedia mugimenduak hizkuntza berriak bultzatu beharko ditu.

Gainera, orain arte munduan ahotsik izan ez duten kulturek ere lekua beharko dute etorkizunean. Afrikari buruzko eduki gehienak Ameriketako Estatu Batuetatik idazten dira gaur egun. Afrika, Asiako eremu asko, Hego Amerikako esparru zabalak... misterio bat dira oraindik ere munduarentzat. Ezagutzaren ekitatea banatzen badugu, haiek ere ahotsa izan beharko dute, beren ahots propioa. Eta ezagutza hori idatzi, dokumentatu eta garatzeko aukera izan beharko dute, “Europako gizon jakintsuaren” ondoan, akaso gaineratik.

Azkenik, ez luzatzearen, Wikimediak askatasunez partekatu nahi du munduko ezagutza guztia gizaki guztiekin. Gizaki guztien barnean umeak ere badaude, baita ikasleak ere. Mundu digital batean ezagutza modu digitalean jasotzen dela ukazina da. Wikimediak bere burua hezkuntza-proiektutzat berrasmatu beharko du etorkizunean, ikasleak gure irakurle

Wikimedia hezkuntzarako proiektu bat dela pentsatzen duten ehunka boluntario hezkuntza-proiektuak garatzen ari dira mundu osoa zehar. Wikimedia mugimenduaren barruan, hezkuntzak geroz eta pisu handiago du.

direlako, gure etorkizuneko editore ere badirelako. Hezkuntza-proiektu bat ere bada Wikimedia.

Wikimedia, hezkuntza-proiektua

Wikimedia hezkuntzarako proiektu bat dela pentsatzen duten ehunka boluntario hezkuntza-proiektuak garatzen ari dira mundu osoan zehar. Wikimedia mugimenduaren barruan, hezkuntzak geroz eta pisu handiagoa du. Aurreko ikasturtean, Donostian egin genuen mundu-mailako Wikimedia+Hezkuntza lehen biltzerra. Bertan izan genituen kontinente guztietako ordezkariak, eta Wikimedia hezkuntzan nola ari diren erabiltzen azaldu zuten. Aniztasuna harrigarria da: badira unibertsitateko ikasleekin artikulua lantzen ari direnak, euren ezagutza gizateria osoaren zerbitzura



Euskal Wikilarien Elkartean oso proiektu interesgarriak ditugu: “Kalitatezko 1.000 artikuluko 12-16 urteko ikasleentzat”, Txikipedia, eskola eta unibertsitatean ezagutza sortzeko modu berriak eta aurrera begira martxan jarri asmo ditugun beste batzuk. Izan ere, jada ikaslea ez da produktu baten irenselea (testuliburuaren logika berberarekin kontsumitzen duena entziklopedia digital bat), baizik eta egilea, eduki sortzailea. Irakasleek, ikasleek eta wikilariak elkarrekin lan egin beharko dute munduko ezagutza guztia gizaki guztiei emateko. Euskaraz. Eta libre.

jarritz; badira ikasleekin multimedial-proiektuak lantzen ari direnak; badira curriculum osoa hartu eta bertan agertzen diren gaiak ahalik eta hoberen lantzeko proiektuak egiten dituztenak; hizkuntza gutxiak berpizten ari direnak; genero-arrakala ixten ari direnak eskoletatik abiatuz; Wikimedia ikertzen ari direnak; eskolako curriculum ofiziala Wikipedian editatzea txertatu dutenak; haurrentzako entziklopediak sortzen ari direnak; unitate didaktikoak, ikastaro trinkoak edo irakasleen prestakuntza egiten dutenak...

Ikasleek erabiltzen duten unetik, Wikimedia hezkuntzarako proiektu bat da. Gure proiektuaren lehen hamarkadan, hezkuntza akademikoaren eta entziklopedia librearen arteko talka nabarmena zen (“ez begiratu hori, edonork idatzia da”), baina pa-

radigma aldatzen ari dela ematen du. Gero eta gertuago, gero eta estuago, gero eta lotuago. Ez begiratu, baina aztertu; edonork idatzia da, baina zuk ere hobetu.

Euskal Herrian ere, Wikimedia eta hezkuntza bateratzen ari gara

Eta zergatik egin zen, bada, mundu-mailako mota horretako lehen biltzarra Donostian? Bada, Euskal Wikilarien Kultura Elkartean hezkuntza-proiektu berritzaile batean murgilduta gaudelako. Aurretik aipatu ditugun ekimen askoren nahasketa egiten ari gara jada duela hiru urtetik, eta aurrera begira oso proiektu interesgarriak ditugu buruan.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, “Kalitatezko 1.000 artikuluko 12-16 urteko ikasleentzat” proiektua jarri genuen abian 2017an. Asmo handiko helburua zen: 12-16 urteko curriculumean agertzen diren kontzeptuak erazi, eta horiek ahalik eta hoberen ematea Wikipedian. Horretarako, unibertsitateko ikasleen (bereziki Euskal Herriko Unibertsitatekoak) laguntza izan dugu. Sistema uste baino sinpleagoa da: zientzia bakoitzean oinarritzko gaiak zein diren finkatzen dugu unibertsitateko irakasleekin, eta euren ikasgaiaren horren inguruan zer landu daitekeen eztabaidatzen dugu. Behin gai-zerrenda bat edukita, ikasleek egin ohi duten lan teorikoa Wikipediako artikuluko izatera bideratzen dugu. Helburu hori lortzeko, ikasleei hitzaldi bat ematen diegu: Wikipedia zer den, entziklopedia bat zer den, nola ezagutu iturri onak eta nola eraiki bibliografia bat... eta laguntza teknikoa ematen diegu euren lana Wikipediako artikuluko formatuan betirako, guztiontzat, libre egon dadin.

Idea hori martxan izan dugun bi urteotan, 2.500 ikasle inguruk hartu dute parte gure proiektuan, 120 irakasle baino gehiagorekin. Guztira 1.500.000 hitz baino gehiago idatzi dituzte, euskarazko Wikipediak duenaren % 5 inguru: ez da gutxi.

Baina, horrekin batera, eskola eta unibertsitateetan ezagutza sortzeko modu berriak ere lantzen ari gara. Jada ikaslea ez da produktu baten irenselea (testuliburuaren logika

berberarekin kontsumitzen duena entziklopedia digital bat), baizik eta egilea. Ikasleak badu aukera bere ezagutza esparru komunaren alde jartzeko, eta badu aukera hortik jasotzen duen ezagutza hori ezbaian jartzeko. Azken finean, edonork idatzi dezakeen entziklopedia horri sinesgarritasun osoa eman dio orain arte, eta konturatu da bera ere edonork izan daitekeela: eduki sortzailea.

Hori gutxi balitz bezala, proiektu guztiz berritzaile bat dugu martxan: Txikipedia. Txikipedia Wikipedia baten barruan txertatutako haurrentzako lehenengo entziklopedia da. Lerro hauek idazteko unean, 2.000 artikuluen langa gaingitu du, umeentzat idatzitako 2.000 pieza labor. Badira antzeko proiektuak beste hizkuntza batzuetan (Wikidia, WikiMini, Klexikon...), baina guztiak daude Wikipediatik bereizita. Txikipediaren eredu Donostiako biltzarrean eztabaidatu zen, eta beste hizkuntza batzuetan ere interes handiarekin ikusi zuten.

Haurrentzako entziklopedia hau irakasle-eskoletan ari dira garatzen. Iaz berrehun ikasle inguruk artikulua idatzi zituzten, didaktikako ikasgaiaren barnean egindako lanekin. Aurrean, eredu hori indartuko dugu, eta saiatuko gara hurrengo urteetan umeentzako corpus bat eskaintzen. Baina, horretarako, irakasleen laguntza ere behar-beharrezkoa izango zaigu. Bidean, Ikastolen Elkartearekin garatu dugun unitate didaktikoa lagungarri izango zaigu.

Zerrenda amaigabe bat egin genezake martxan ditugun proiektu eta ideiekin. Baina bada aipatu nahi dudana etorkizuneko erronka interesgarri bat. Ikusi dugu irakasle batzuek testu-iruzkinak egiteko balia nahi dutela Wikipedia. Ez da lekua. Baina ideia interesgarria da. Sor dezakegu sistema bat ikasleek testuak azpimarratu, oharrak hartu, iruzkinak egin eta koaderno “propio” moduko bat izateko? Ikasketa-prozesuan Wikipedia txertatu nahi badugu, funtsezkoa da horrelako proiektuak garatzea. Irakasleek, ikasleek eta wikilariak elkarrekin lan egin beharko dute munduko ezagutza guztia gizaki guztiei eman ahal izateko. Euskaraz. Eta libre.

ARGITALPENAK




STEAM ESPERIMENTUAK HAURRENTZAT

Liz Lee Heinecke

ELHUYAR

Haur eta gazteentzako esperimentu liburu honetan 52 esperimentu praktiko eta sortzaile biltzen dira zientzia, teknologia, ingeniari-tza, artea eta matematika (STEAM) aplikatuz. Esperimentuak egin bitartean gaiari buruzko hiztegia eta beste ideia batzuk aurkezten dira.



GENEROA ETA INDARKERIEEN PREBENTZIOA

Jolas eta Ekin

JOLAS ETA EKIN

Hamar fitxa didaktikoz osatuta dago eta DBHko irakasleentzat zein gizarte erakundeetako langileentzat prestatuta dago. Balio etikoak lantzeko eta hainbat ikasgaitan zeharka jorrazteko gaia da eta prebentzioaren esparrurako ere egokia izan daiteke hezkuntza formalean, ez formalean zein informalean lantzeko.



EMAKUMEEN JAKINTZEK GORDETZEN DUTEN ZIENTZIA

Sorkin elkarte

SORKIN ELKARTEA

Sorkin elkarteak argitaratu duen material didaktiko hau 12-16 urte bitarteko gazteekin lan egiten duten hezitzaileei zuzendua dago. Neskak ahalduzko eta mutilen artean jarrera berdina-leak sustatzeko materiala da, bereziki zientziaren esparrura begira jarrita, STEAM alorrari, hain zuzen ere.



Bidean

Garazi Arrula / Helena Azkarragaurizar

DENON ARTEAN

Iratik gauza pila daki. 'Ikara' hitza ez da gauza horietako bat. Iratik gauza pila dakien jendea du inguruan. Haiek badakite 'ikara' zer den. Iratik gauza bat gehiago jakinen du gaur. Garazi Arrula idazle nafarrak idatzi du liburua eta Helena Azkarragaurizar arrasatearrak egin ditu ilustrazioak. Arrula itzultzailea ere bada eta zenbait literatura lan ere ekarri ditu euskarara.




AMAMA ETA AITITA

Chema Heras / Rosa Osuna

KALANDRAKA-PAMIELA

Manuela amona gaztetxo bat bezain pinpirina da eta Manuele aititak harekin dantza egitea maite du. Metatze-egitura eta testu poetiko baten bidez, istorioak maitasunaren begien bitartez edertasuna topatzen laguntzen digu, gorputza ahultzen denean eman daitekeen maitasun guztia ikusarazten digu eta irribarrea ahoan bizitzeko abantailak erakutsen dizkigu.



AMETSEN BASOAN

Pello Añorga / Irimarra

ELKAR

Amets zoragarriak aurkitzen zituzten haurrek Ametsen basoan. Zuhaitzen adarretara igo, urrezko adar bat hartu eta, aski zuten orri ameslari bat ukitzearekin, ametsetan hasteko: ardia eta otsoa lagunak ziren; haizeak sekretuak kontatzen zizkion entzun nahi zitueneri; perretxikoak aterkien tamainakoak ziren... Ametsez baliatuz irudimenari lekua egiten dion liburua da.

PROPOSAMENA

Biodantza eskolan

Emozioak, pentsamenduak eta gorputza bateratzeko teknikak

Eskolan Biodantza lantzeko dinamika ezberdinak proposatzen dituzte Elen Kortaxarena eta Eider Zuriarrain Biodantza emaileek. Edozein alderdi eta mailatan lantzeko proposamenak egiten dituzte, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino. Diotenez, gorputz adierazpena lantzearekin batera, garapen pertsonalerako ere balio duelako Biodantzak.



Hezkuntza prozesuak esanguratsuak izan daitezen, pertsona osatzen duten hiru oinarriak bateratzea ezinbestekoa da Elen Kortaxarena eta Eider Zuriarrain Biodantza emaileen ustez. Sentitu, pentsatu eta egin aditzak eskutik helduta ulertzen dituzte, alegia, emozioak, pentsamenduak eta gorputza bateratzea ezinbestekoa iruditzen zaie irakaskuntza prozesuak –eta bizi prozesuak oro har– esanguratsuak izateko. Hori lortzeko Biodantza erreminta oso aberatsa delakoan daude eta gorputza ira-

kaskuntza-prozesuan txertatzeko baliabideak eskaintzen dizkiete ikastetxeei. Edozein alderdi eta mailatan lantzeko proposamenak egiten dituzte, bai Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta baita Batxilergoan ere. Azpimarratzen dutenez, “irakaskuntza prozesuan gorputzaren presentziak edozein arlotan egon behar du. Gauden lekuan gaudela, ez baikara gorputzetik banatzen”.

Ikasleekin gorputz esperientziatik abiatzen diren prozesuak lantzeko oinarri metodologiko modura uler-

tzen dute Biodantza beraien zereginetan. Baina zertan oinarritzen da Biodantza? Eider Zuriarrainek azaltzen duenez, “gorputz adierazpen sistema bat izateaz gain, garapen pertsonalerako ere bada Biodantza; talde testuinguru batean, musika eta mugimendua, eta ariketa antolatua bitartez, gure gaitasun naturalak garatzeko aukerak eskaintzen dizkigun teknika bat da Biodantza”. Izan ere, bizi dugun jendartearen “pentsamenduaren garrantzia” gailendu dela aipatzen dute Kortaxarenak eta Zuriarrainek, “gorputzaren eta

emozioen kontzientzia eta adierazpenaren gainetik”.

Hori dela eta, gorputz esperientziatik abiatzen diren ikaste-irakaste prozesuak berreskuratu nahi dituzte eta bizipenetan oinarritutako ikaske-ta esanguratsua sustatu. Zuriarrainen arabera, “inoiz baino gehiago bizi gara kanpora begira, eta gure arlora ekarrita, oinarritzko hezkuntzan norbere barrura begiratzeko lanketa egitea behar-beharrezkoa dela uste dugu, oinarri-oinarrizkoa. Gainera, etorkizuna ziurgabea den aldi hone-tan, are gehiago”.


Alderdi fisikoa, psikikoa eta emo-zioanala gogoan hartuz, haien arteko sintonia bilatu nahi dute, “organismoiari bere osotasunean heltzeko” dio Kortaxarenak eta honakoa gaineratzen du: “Organismoa behar bezala koordinatuta eta sintonizatuta dagoenean, oso emankorra da bere ekintzetan. Aldiz, gorputzak, pentsamenduek eta emozioek, bakoitzak bere aldetik jotzen dutenean, edo beraien arteko borroketan dabiltzanean, organismoa erdibitu, indargabetu eta ilundu egiten da”.

Ikastetxeen beharretara

Biodantza oinarri hartuta, harremanen kalitatean gorputzaren garrantzia lantzeko era askotako proposamenak egiten dituzte, hasi Haur Hezkuntzatik eta Batxilergoraino. Egiten duten baliabideen eskaintza, dena dela, ikastetxe bakoitzaren beharretara egokitzen dutela aipatzen dute: “Bakoitzaren beharrak entzun eta ondoen egokitzen zaizkien saioak prestatzen ditugu”. Kopuruari dagokionez ere behar bakoitzaren arabera egokitzen dira, nahiz eta beraiek sei saiotako proposamen egituratu bat garatuta daukaten. “Proposamen orokor bat egin dauekagu, sei saiorekin. Astero saio bat egiten da eta aste horretan zehar saioan izandako bizipenak txertatzen joaten dira”. Proposamenan jasotzen denez, lehen bi saioak norbera bere buruarekin erlazionatzeko dira; hurrengo bi saioetan norberak besteekin dituen harremanei erreparatzen zaie; eta azken bi saioak norbera taldearekin edo munduarekin erlazionatzeko dira.

Biodantzaren bidez ikasleekin gorputzetik landu daitezkeen gaiak, berri-z, ugariak izan daitezke. Besteak beste, honakoak proposatzen dituzte Kortaxarenak eta Zuriarrainek: zehar konpetentziak gorputzaren bidez lantzeko saioak, bullying-ari aurre hartzekoak, hezkidetzat lantzekoak, talde giroa hobetzekoak, sexualitateari buruzkoak, drogomendekotasun prebentzioaren ingurukoak, nerabezaroa eta identitatea lantzeko saioak, zentroko elkarbizitza-planeko helburuak bizipenetara ekartzeko saioak, edota irakasleei eta gurasoei zuzendutakoak. Kortaxarenak aipatzen duenez, biodantza oinarri duen proiektu honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak indarrean dituen hainbat egitasmo lantzeko garaian osagarri izan nahi du. Berak dioenez, “hain zuzen ere, Heziberriko oinarritzko konpetentzietan, Hezkidetzako 2019-2023 planean eta bullying-aren aurkako Bizikasi proiektuan jorratzen diren hainbat helburu lantzeko erreminta gehigarria izan nahi du gure proiektuak”.

Gorputza eta mugimendua, guztiok sortzetik bertatik geure geureak ditugun elementuak dituzte lanabes. “Hori guztia norbere buruaren ezagutzan sakontzeko eta besteekin eraikitzen ditugun harremanetan trebetasunak eskuratzeko, taldean elkarlana sustatuz eta konfiantza berreskuratuz”. Dantzaren bidez gorputza mugituz, baina bizitzaren erritmoan.



Biodantza eskolan txertatzeko proposamena

Harremanetarako:

Elen Kortaxarena Gesalaga
Telefonia: 653 709 924
E-posta: biodantza.elen@gmail.com

Eider Zurriarain Bergara
Telefonia: 649 108 698
E-posta: biodantza.eider@gmail.com

Hezkuntza arlorako eskaintza:

Biodantza oinarri metodologiko gisa hartuta, edozein alderdi lantzeko proposamenak Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino.



ATZEKO ATETIK



ESKAERA ETA IRADOKIZUNEN POSTONTZIA BETETA

ALAINE AGIRRE IDAZLEA

A itortu behar dut iritzi artikulu hau idazteko eskatu zidaten momentuan zerrenda mental bat egin nuela eskolari eskatu, zuzendu edota erreprotxatu nahi nizkion kontu guztiekin. Zerrenda luzea zen, eta, gainera, argudioz eta adibidez potolotuko nukeen. Artikuluaren aditz denbora nagusia hipotetikoa zatekeen. Hitzen erdiak neologismoak. Eta tonua apokaliptikoa.

Aitorpenak egiten hasita, esango dut inoiz ez naizela oso pertsona errealista izan. Eta eskaera honen aurrean ere, ez nintzen errealista izaten ari. Ez bakarrik agindu zizkidaten karaktere kopurua exajeratuki labur geldituko zitzaidalako zerrenda luze eta potolo eta balitz-baliraz betetako hori idatziz gero, baizik eta horko eskaera/zuzenketa/erreprotxeak ez direlako inongo eskolatarako eskaera eta iradokizunen postontzian kabitzen.

Ez baita errealista eskolak aniztasunaren alde, indarkeria matxistaren kontra, arrazismoaren eta xenofobiarren kontra, kontzientzia ekologista batekin, genero rol binarioak hautsiz, sexualitate eredu berriak emanez, neurodiberjenteei lagunduz, gaitasun anitzak dituztenen beharretara moldatuz, euskaltzaletuta, euskal kultura transmitituz, artearenganako sentsibilitatea eraginez, pentsamendu kritikoa sustatuz, sormena landuz, bakoitzaren dohainak azpimarratuz, ahulguneak

indartuz, enpatiaz, errespetuz, berdintasunez, onarpenez, adiskidetasunez, baikortasunez, ulerkortasunez jardutea, eta, aldi berean, ikasleei ikasteko grina hauspotzea, ikastearen garrantzia helaraztea, jakintza eta libertatea eskutik datozela (suposatzen da) ulertaraztea, jakin-mina piztea eta elikatzea, nola ikasi erakustea baina irakatsi barik, askatasuna emanez, beren autonomia garatuz, kritikoak izatea bultzatuz, nortasunak ez zapaltzeko tentuz ibiliz, bakoitzaren erritmoak errespetatuz, ikasle guztiak motibatuz, eta, noski, hau dena, inondik inora ere, inoiz eta inon, aurrez ezarrira dagoen kurrikuluma emateari utzi gabe, hamasei gaietatik hamaseiak emanez, testuliburuak esaten dizkigun tenpoak errespetatuz, azterketak eginez eta egunero etxerako lanak aginduz, jakintza eta ezagutza transmitituz, kantitatez zein kalitatez, euskara erabiltzeko konbentzitu eta euskarra maila on bat izan dezaten lortuz, Historian zehar pajarita edo gorbata eraman duten batzuk-guzti-horiek nortzuk izan ziren eta zer egin zuten irakatsiz (inoiz ez zer egin ez zuten, esaterako, zaindu), teknologia berriak erabiliz, oinarri on bat emanez zientzietan, beste oinarri on bat emanez letretan, eta musikan eta literaturan eta artean, gorputz heziketaz ahaztu gabe, eta abezedario historiko, kultural, derrigorrezko guztia oso-osorik eta

inongo hutsunerik gabe irakatsiz.

Ni ez naiz errealista eskolari kontu eske ez etorrita ere, karaktere kopuru baimenduaren barruan egongo nintzatekeela pentsatu dudalako beste behin (oraingoan ere, muga gainditu egingo dut). Baina gizarte modura ere ez gara errealistak hori guztiori eskolari eskatu eta bete behar duela esaten diogulako. Ez txarto ulertu, hori guztiori garrantzitsua eta ezinbestekoa eta berebizikoa iruditzen zait. Hezkuntza da betidanik gehien interesatu nauen gaia, eta interes horren parekoa da eragiten didan kezka. Baina gaur entzun dudan iruzkin batek pentsarazi egin dit eta artikulu hau zertaz idatzi pentsatzen pasatuko nituen asteetako burukomina kendu: gizartearen gaitz guztientzako konponbidea eskola dela esaten dugu beti. Eta, bai: konturatu naiz, orain arte, nik neuk ere gure gizarte honen farmaziatzat izan dudala eskola, azken honek edozein arazorentzako pilula majikoak balitu legez. Eta, ez: eskola ere ez da denera iristen.

Kontua da, nik neuk testu hau idazteko ideiak priorizatu behar ditudan era berean, eskolari eskatzen dizkiogun gauza guztien artean hierarkia bat ezarri behar dugula. Zereginak hautatu. Funtzio bat esleitu.

Eta behin gauzak lekuz aldatzen hasita, zergatik ez utzi atzean gu atzean utzi gaituena, eta gu berrituko gaituen zerbait berriari ekin?

ZUBIRI-ZUBIRI



CAF
ELHUYAR
SARIAK
2020

Oinarriak: cafelhuyarsariak.elhuyar.eus

Lanak aurkezteko azken eguna: **2020ko otsailaren 7a**

ANTOLATZAILEAK

CAF elhuyar
ezagutuz aldatzea

BABESLEAK

neiker
tecnalia



Jaso urtean lau zenbaki,
20 €-ren truke

Hazi Hezi

haziera eta heziketa aldizkaria



Hazi Hezi eta **hik hasi**
familia eta eskola
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • www.hikhasi.eus